

ARRASATE

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko uztailaren 18a / 638. zenbakia

ARRASATE

KOOPERATIBA BATEN IBILBIDEA



FAGOR ARRASATEREN HISTORIAREN LIBURUA; ZELANBAIT, ARRASATEREN HISTORIA ZATITXOA

Fagor Arrasate lantegiaren ibilbidean lan handia egin zuen argazkiko furgonetak; lehenengoa izan zen, eta bakarra. Gauza guztietarako erabili zuten.

ORAIN ETA HEMEN: ASTELEHENEAN OSOKO BILKURA/7 • KIROLA: M^a JOSE GIL PUERTO RICON/11

AZALA: ALEX AZKARATE / ARGAZKIAK: ARRASATE KOOPERATIBA BATEN IBILBIDEA LIBURUA

EDERTASUN GIDA/2

Edertasun Gida

SAGARRA GOIENENKO TENTAZIOA

Sagarraren onura elikagarriek eta zapore goxoak hankaz gora utzi dute Bibliak aspaldian zio-ena, hots, sagarra debekatutako fruitua dela. Gainera, egungo aurkikuntza kosmetikoek bertute ikaragarriak ematen dizkiote sagarrari. Sagarraren hazietatik ateratako landare aktibo batek menopausiak eraginda-



ko azalaren zahartzea geldiarazten du. Gai horrek kolageno eta elastina zuntzak birsortu, azala berrestu, zelulen berritzea zaindu eta melaninaren sintesia erregulatzen ditu. Ildo beretik, kanpoko erasoe-tatik babesten du azala, eta hidratazioa, leuntasuna eta erosotasuna eskaintzen ditu.

ILE APAINDEGI MISTOA

iaran

Zerrajera 1.
Tel.: 943 79 81 79

Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian
zapatuak: 08:00-14:00 / Abuztuan: 1etik-8ra eta 25etik-31ra zabalik

JADE
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

AUSART

ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriz kalea 24. Tel.: 943 777 30 60
943 777 21 58

Lore

Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50
Lumindegia eta estetika zentroa

YOUNG ORGASM Ayes HR CANTO BOTHERM WILMONT

ILEAPAINDEGIA

ILEA
UNISEX

Ferrerias 14. 943 79 87 62

BITXORI
ile apaindegia

Erdiko kale 52.
Tel.: 943 79 88 32

Edertasun Gidan parte hartzeko, deitu 943 71 23 91 telefonora

KALEINKESTA/ Juengo zitzake Pirineuetara Tourre ikustera?



RAFAEL RAYA
Langillie

Ba, egixe esan, ziklismue ez dot bape jarraiketan, eta etapa bat zuzenien ikustiek ez dust egitten aparteko ilusiñorik. Futbola izengo balitz juengo nitzake, baiñe ziklismue...



JOSE MIGUEL BASTARDO
Langillie

Oso gustora juengo nitzake etxeko ziklistei animetan. Zuzenien ikusi doten Tourreko etapa bakarria Donostiakue izen zan, eta oso emozionantie izen zan. Gustora juengo nitzake, bai.



RAUL BLÁZQUEZ
Iksaliek

Bai, gustora juengo nitzake Mayo eta Zubeldia animetan, baiñe ezin juen! Tourre egunero jarraiketan dot; etapa danak ikusi dittut telebisiñuen, eta oso zalie naz.



ELIXABETE URIARTE
Langillie

Bai, gustora juengo nitzake. Tourre ez dot askorik jarraiketan, baiñe gizonak bai. Badakit ziklista euskaldunek ondo dabitza, eta gustora juengo nitzake Euskaltel-Euskadi animetan.



EDURNE BARRUTIA
Langillie

Bakarrik baningo juengo nitzake, baiñe umiekin... Ziklismue jarraiketan dot, eta politte izengo litzake Pirineuetara juetie; euskaldunek ondo dabitza, eta horrek animau egitten dau.



DORLETA VILLAR
Langillie

Oso gustora juengo nitzake. Telebisiñuen ez dot askorik ikusten, baiñe oin be entzun dot Beloki erretirau egin dala. Domekako karrerie ikusitte, gustora juengo nitzake animetan.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK UDAKO KULTURA ESKAINTZA Udaleko Kultura Sailak urtean hainbat ekitaldi antolatzen ditu, eta uztailan, eguraldi hobeagoa aprobetxatuta, Monterronen eta Herriko Plazan hainbat ekitaldi egiten ditu, gehienak doan. Aspaldiko kontua da, eta herriak ondo hartzen ditu. Txalogarria iruditzen zaigu. Hortaz, horrela jarrai dezala, herriarendako ekitaldi kulturalak antolatzen, alegia.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

Pablo Letona badoa

La mende erdiz Bedoñako abade izan den Pablo Letonak destino berria izango du irailetik aurrera.

KIROLAK / 9

Gorka Bergaretxe

Gorka Bergaretxek snowboard-a egiten du, baina ez neguan bakarrik. Orain ere horretan dabil, Alpeetan.

KULTURA / 13

Nazioarteko dantzak

Eguaztenean, Kenyako eta Yakutiako talde bik dantza ikuskitzuna egingo dute Monterronen.

ASTEKO DATUA

3.600

EURO EMANGO DITU UDALAK LANPOSTU BERRI BAKOITZEKO

Udalak abian jarri du lanpostu berriak sortzeagatik enpresek laguntzak eskatzeko epea. Surtako lanpostu berri bakoitzarengatik, enpresak 3.600 euroko dirulaguntza jasoko du.

BESTE EKESANA

Bazen arrazoi bat Jose Mari Azkarraga Lurgorri-ren baitan euskal kontzientzia egunez egun sendotzen ari zena: 1925etik sendiak Aramaian ematen zituen udako hila-beateak. Inguru zeharo euskaldunarekin aritu ahal izateko aukerak gazte haren baitan zutabe indartsuak eraikiarazi zituen. Aramaio egoaldi haiek bilakaera naturala eragin zuten gaztearengan, jaioterria ahaztu ez zuen arren, bere burua aramaiartzat hartzera eraman zuen. Hamabi urte iraun zuen Aramaio eta Jose Mari Azkarraga arteko maitasun zintzoak. Tarte laburreko sentimendu ederra, bala hiltzaileek etena (...). Lurgorri-ren bizitza laburra, bere aberriarenganako sentimenduen katea izan zen"

JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL
'EUSKONEWS&MEDIA' / 03-07-14

HERRITARREN BERBAK / Antton Mendizabal



Garapen eredua eta eko-hiria

Armadaren derrotarekin batera, jabetza komunitarioaren lehentasunean eta famili baserrietan oinarritutako egitura sozial propioaren hondamena dugu. Ejerzitoaren okupazioarekin, jabetza sistema berriek gidatzen dute garapen eredua: espainiar jabetza estatala (publikotasun kontzeptua hemen degradatuko duena) eta mugarik gabeko jabetza pribatua. Horrela, gure nazioaren zapalkuntzarekin batera, interes orokorraren aurkako eta biodibertsitatearen aurkako hirigintza, industrializazio eta lurraldearen antolaketa sufritu ditugu.

Gure inguruan, Debagoieneko lurralde antolaketa barnean, Urkuluko eko-hiria da horren azken adierazpena. Jakina, landa biztanle guneak garapen neoliberalaren azken gailurrak dira. Hemen, landa paisaia bereganatu nahi duen elite batentzako diseinatua dago. Azpian, neoliberalismoa-

ren garapen basatiaren magalean, gailurrarekin loturiko paisaiak ikusten ditugu.

Espekulazio zakarrean murgildurik dagoen lurzorua agorpena lehena. Lurzorua da natur baliabidea handitu ezin den bakarria eta berri ezina dena.

Elikadura soberaniaren ezintasuna bigarre-na. Baserriaren ekonomia, ekoizpen propioa eta elikagaien aniztasuna ezabatuta eta gure herriaren subiranotasunerako bidari oztopoak ezarrita.

Merkataritzagune handiak hirugarrena, herritarren arteko komunikazio ahuldu-ta, gizartea banakatuta eta langabezia handituta.

Etxebizitzen prezioen igoera laugarrena; hiritarren eskubidea, etxebizitza, espekulazioaren atzaparretan kokatuta dago. Garraio azpiegitura amaigabea bosgarrena; industria gune desberdinak interkonektatzeko, lurraldea kutsatuz eta desegituratuz.

"Interes orokorraren aurkako hirigintza, industrializazio eta lurraldearen antolaketa sufritu ditugu"

Arrasate

Otolora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaiñzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 18
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30

ZAPATUA, 19
Español, Araba etorb. 17. 943 79 18 65

DOMEKA, 20
Azkoaga, Ferrerías 1. 943 79 15 15

ASTELEHENA, 21
Corcuera, M. Aranbarri 1. 943 79 22 26

MARTITZENA, 22
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30

EGUAZTENA, 23
Español, Araba etorb. 17. 943 79 18 65

EGUENA, 24
Azkoaga, Ferrerías 1. 943 79 15 15

EGUBAKOITZA, 25
Corcuera, M. Aranbarri 1. 943 79 22 26

TELEFONOJAKINGARRIAK

ERIEIXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . 943 03 53 00
Igalatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 14

LARRIALDIAK
SOS Delak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelehenerik
egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . egun osoa

Arrasate
Astelehenerik
egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak. 943 03 53 11
- Ikuskatzailea. 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

ERTZAINZA
Arrasate. 943 79 71 99

SUHILTZAILAK
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

| | |
|---|---|
| San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna) | San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) | Santa Marinako eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

MAALAKO JAIK
Domekan eta martitzenean Maalako Errabalak jaiak ospatuko ditu. Hain zuzen ere, domekan meza izango dute eta erretiratuek luntxa izango dute. Martitzenean, arratsaldean, ume jolasak eta txokolate-jana antolatu dituzte. 21:00etan afaria egongo da, eta 22:30ean, dantzaldia eta suzko erruberak antolatu dituzte.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Eguenean, uztailaren 24an, *Delicatessen* filma emango dute Monterron parkean. 22:30ean izango da, doan.

NAZIOARTEKO DANTZAK
Eguaztenean, uztailaren 23an, Kenyako eta Yakutiako talde bik dantza ikuskitzuna eskainiko dute Monterron parkean, 22:30ean.

FERRERIASKO JAIK
Uztailaren 26an, zapatua, Ferreriasko jaiak ospatuko dituzte, eta besteak beste kaletarrek afaria egingo dute. Izena eman Artea Eskulanak dendan.

'GARA'-REN ALDE
Bihar, zapatua, *Gara*-ren aldeko kale agerraldia egingo dute Donostian. Autobusean joan gura baduzu, izena eman Iratin. Autobusa 16:00etan irtengo da, Garibaitik.

AEDrenAGENDA

ARIMA BELTZA
Gaur, egubakoitza, Arima Beltza taldeak kontzertua emango du. AEDk antolatu du, Kultur Errotaren barruan. Ferrerías kalean izango da, 23:00etan.

'EGUNKARIA'-REN ALDE
Egunkari berriaren aldeko batzordeak *Berria*-ren aldeko akzioak eta materiala saltzen dihardu. AEDn daude salgai.

URBANOENORDUTEGIA


Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Mondraren defizita zortzi milioi pezetakoa zen


Mondra Futbol Taldeko urteroko batzar nagusian, taldeak denboraldian egindako lana txalotu zuten, eta hurrengo urterako bajen eta alden berri eman zuten. Zortzi milioi pezetako zorra zuen Mondra Futbol Taldeak, eta, horren ondorioz, bazkideen kuotak 500 pezeta igo zituzten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Errengillaria"

Hara.
—Txindurri errengillaria agiri zan bidian.
—Jente errengillaria plazaraino aillagatzen zan.




GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

| | |
|---------------------------------------|----------------------------------|
| MINIMOA Zapatua, 12 | 16 °C |
| MAXIMOA Zapatua, 12 | 35 °C |
| ASTEKO EURIA (l/m²) | 5,9 L |
| | Max. Min. Euria |
| Eguaztena, 9 | 24 °C 17 °C - l/m ² |
| Eguena, 10 | 31 °C 17 °C - l/m ² |
| Egubakoitza, 11 | 32 °C 17 °C - l/m ² |
| Zapatua, 12 | 35 °C 16 °C - l/m ² |
| Domeka, 13 | 32 °C 17 °C - l/m ² |
| Astelehena, 14 | 24 °C 19 °C 4,3 l/m ² |
| Martitzena, 15 | 29 °C 18 °C 1,6 l/m ² |


Berгарako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Sahararren oporraldia Arrasaten

Aste honetan, herrian dauden ume sahararren gainean egin dugu berba. *Oporrak* bakean programaren bidez etorri dira, eta programaren koordinatzaile batekin izan gara, Elena Untzuetarekin. Horren guztiorren helburua zein den azaldu digu Elenak. Horrez gainera, etxean saharar bat hartu duten bi arrasatearrek ere izan gara, Jesus Mari Elkororekin eta Felix Arriaranekin. Elkarrizketa horiek zapatuan eta domekan emango ditugu, 11:00etan.



Compay Segundo gogoratuko dugu

Astean hil da Compay Segundo kantari kubatarra, eta Arrasate Irratian omenaldi xumea egingo diogu. Eguaztenean, 10:00etatik aurrera, abeslariaren ibilbidea gogoratuko dugu, kantuak lagun ditugula.
Eguenean ere gauza bera egingo dugu, baina Bitoriano Gandiaga gogoratuta. Poetari omen egiteko *Elorri loratua* izeneko diskoa kaleratu dute, eta 10:00etan diskoa entzuteko aukera egongo da. Hainbat abeslarik esku hartu zuten grabaketan.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ZAPATUA, 19
11:00 **Asteko elkarrizketak:** Elena Untzuetara, Jesus Mari Elkorora, Felix Arriaran, Arrate Fernandez, Aitor Mantxola...

DOMEKA, 20
11:00 **Asteko elkarrizketak**

ASTELEHENA, 21 MARTITZENA, 22
09:00-11:00 **UDA GIROAN Albisteak.**
Elkarrizketak.
Hondartzen, igerilekuen eta urtegiaren egoera.
Eguraldi iragarpena.
Agenda.
19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiako albistegi laburra.**

EGUAZTENA, 23
09:00 **Elkarrizketen errepikapena.**
10:00 **Segundo Compay gogoratuz.**

EGUAZTENA, 24
09:00 **Elkarrizketen errepikapena.**
10:00 **Bitoriano Gandiaga gogoratuz.**

ASTEABIHITZETAN

Sutea zela-eta leihotik zintzilik

18 urteko neska arrasatear bat leihotik zintzilik geratu zen, domeka goizean, Araba etorbideko etxebizitza batek su hartu zuenean. Gaztea, suaren eta kearen beldurrez, leihora irten zen, eta leihoaren kanpoaldean geratu zen, zintzilik.

Zorionez, ertzainei eta bizilagun bati esker ez zen ezer larririk gertatu, neska onik dago-eta. Hori bai, arnastutako kearen ondorioz hiru lagun ospitalera eraman zituzten. Sua goizeko hamarretan piztu zen, eta berehala iritsi ziren suhiltzaileak. Hamar eta erdietan itzali zuten sua, baina eguerdian oraindik ke handia zegoen.

Sexologia Zerbitzua kalean

Arrasateko Sexologia Zerbitzuko kideak kalera atera ziren egubakoitz goizean. Sexologia Zerbitzuko arduradunek aspaldi esan zuten moduan, jendea eurengana joateaz gain, eurek ere herritarrengana hurbiltzeko asmoa zuten, eta horretan dabilta.

Hil honetako egubakoitzetan Laubide plazan aurkituko dituzue, egun horietan azoka egingo dutela aprobetxatuta. Joan den egubakoitzean izan ziren lehenengoz, eta gaur goizean ere Laubide plazan izan dira, herritarrengatik ezin gertuago.

Indusketa lanak, bide onetik

Uztailaren 7an Leze Txikin hasitako indusketa lanak bide onetik doaz. Alvaro Arrizabalaga arkeologo oñatiarraren esanetan, orain arte eguraldiak asko lagundu die, eta lanek ez dute atzerapenik izan. Horrelako lanak eguraldiagatik baldintzatuta egoten dira, eta orain arte ez dute aparteko arazorik izan.

Historia, Arkeologia, Antropologia eta Medikuntza ikasleak dabilta indusketa lanak egiten, eta hilaren 25era arte jardungo dute Leze Txikin.



Umezaintzako agur festa

Arizmendiko umezaintzakoek joan den egubakoitzean egin zuten ikasturte bukaerako azken festa. Urtero moduan, gurasoek, irakasleek eta umeek egin zuten festa. Jaialdia, gainera, koloretsua izan zen, umeak eta irakasleak mozturuta azaldu ziren-eta.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Hemengo eta kanpoko umeak

Azken egunotan Saharako hainbat ume Arrasatera etorri dira, uda hemen igarotzeko asmoz. Txernobildik eta beste leku batzuetatik ere ia urtero etortzen dira batzuk. Horrez gain, azken bi urteotan gero eta ume gehiago ikusten dira herrian, eta badirudi Arrasateko jaiotza kopuruak ez duela, epe laburrean, behintzat, behera egingo.

Joan den hamarkadan askotan entzun behar izan genuen Euskal Herrian gero eta ume gutxiago jaiotzen zirela, baina badirudi herri honetan eta, oro har, ibarrean ere zenbaki horiei buelta ematen ari garela.

Bestalde, Saharatik eta beste herrialde batzuetatik umeak uda igarotzera etortzen diren bezalaxe, Euskal Herriko eta, tartean,

Arrasateko familia batzuek ere atzerriko umeak adoptatzeko joera hartu dute.

Hemengoek seme edo alabatxo bat hartzeaz gain, guraso horiek umeak seguru-erik gurea baino bizitza maila baxuagoa duen herrialde batetik ekarriko dituzte. Horren bitartez, agian ume horiei bizitzan aukera gehiago emango dizkiete. Beraz, guk daukagun bizitza maila beste herrialde batzuetakoekin banatzeko aukera ere bada.

ASTEKOIRUDIA



NEREA ZUBIETE

OPORRAK IGAROTZERA SAHARATIK ARRASATERA

Dagoeneko Arrasaten daude oporrak igarotzera etorri diren zortzi haur sahararrak. Uztailaren 9an etorri ziren, eta lehenengo egunak ondo baino hobeto eman dituzte, Arrasateko familiekin. Martitzenean udaletxean izan ziren, eta han alkateak harreara ofiziala egin zien. Arrasateko gaztetxoek nahiko

lan izango dute Jamila, Khalifa, Mohamed, Halihana, Yeslem eta holako izenak ikasten, nahiz eta guretako izen batzuk ezagunak diren. Haur horiek Saharako Tindouf, Aiun eta Asmara kanpalekuetatik etorri dira. Egia esan, eurek ere lan handia izango dute Arrasateko lagun berrien izenak ikasten. /X.U.



GORKA ILE APAINDEGIA

Abuztuan zabalik!


15etik 21era izan ezik

09:30etik 20:00etara

GORKA
ilespundegia

Ferrerias 35 Arrasate
Tel : 943 77 13 78

PUB HAIZEA



ELKARRIZKETA

AMAIA IRIZAR ETA ARIANNE KAREAGA/IDAZLEAK

“Kooperatiba moduan inskribatu zen lehenengo lantegia Fagor Arrasate izan zen”

ARRASATE PRESS

Amaia Irizar arrasatear eta Arianne Kareaga bergarar gazteak dira *Arrasate*, *Kooperatiba baten ibilbidea* izeneko liburuaren egileak. Joan den astean liburuaren berri eman genuen; oraingoan, gaia apurtxo bat sakondu, eta egileekin berbetan izan gara:

Zer dela eta liburu idazteko proposamena?

Humanitateak eta Enpresa karrera bukatu berri genuen, eta Lanki ikertegitik etorri zitzaigun Fagor Arrasateren historiaren liburu idazteko proposamena. Kontua da hasierako langileak erretiratu hasita zeudela, batzuk hiltzen ere bai... orduan ikusi zuten lantegiaren historia galtzeko zorian zegoela, eta erabaki zuten bazela liburu idazteko garaia. Hasieran, zalantza genuen gai izango ginen-edo, baina, esan ziguten lagunduko zigutela, eta aurrera egin genuen.

Noiz etorri zitzaizuen proposamena?

2001eko irailean. Gero, urrian lanean hasi ginen. Eta, martxoan inguruan idazten bukatu genuen. Baina, argazkiak lortzea, make-tatu... bukatzen hilabeteak eman ditugu. Azkenean, maiatzean aurkeztu zuten. Ia bi urte luze ibili gara lanean.

Kooperatibismoaren gaineko makina bat liburu badaude; honek zer berri dakar?

Lehenik eta behin esan Fagor Arrasateren gainekoa dela, hortaz, kooperatiba bakarraren ibilbidea kontatzen du. Gure asmoa zen gaia arlo sozialetik aztertzea, gehienbat, Arrasateko esperientzia kooperatiboa ekonomia aldetik-eta aztertuta dagoelako. Enpresa barruan sartu ginen, eta besteak beste, 50 elkarrizketa baino gehiago egin ditugu; hainbat belaunalditako pertsonak elkarrizketatu ditugu, euren bizipenak kontatu...

Beste berezitasun bat izan daiteke orain arte idatzi diren halako liburu gehienak gazteleraz idatzi izan dituztela, eta guk euskaraz idatzi dugula eta gero itzuli dutela gaztelerara.

Lehen aipatu duzue laguntza handia izan duzuela...

Hasieratik talde jarraitzaile modukoa egin zuten; gu Fagor Arrasatekin kanpokoak ginen-eta. Fagor Arrasate bertako langileak, erretiratu pare batek, zuzendaria... taldea sortu zuten, eta sekulako laguntza eman digute.

Esandako moduan, Fagor Arrasate lantegia da liburu protagonista. Zein egoeratan

dago, gaur egun, lantegi hori?

Hiru negozio ditu: bata prentsa, bestea ebaketa lerroena eta bestea transferentzia. Erreminta makinatan jarduten du, eta Arrasaten du egoitza, baina, Markinan eta Donostian ere baditu lantegiak. Gu hiru lantegietan ibili gara, baina, gehienbat, Arrasaten; handiena delako.

Berez, noiz sortu zuten Fagor Arrasate?

1957an. Hemen beti pentsatu izan da Ulgor dela sortu zen lehenengo kooperatiba, eta guk ikusi dugu zela Ulgor izan zen lanean hasi zen lehenengoa, baina, berez, kooperatiba moduan inskribatu zen lehenengoa Fagor Arrasate izan zela.

Liburuaren azalean furgoneta txikitxo bat agertzen da, horrek badu historia...

Argazki mitikoa da, han gordeta zeukatena. Lantegiaren lehengo izena agertzen da: TACI (Talleres Arrasate Cooperativa Industrial). Eta istorioa da Fagor Arrasateren lehenengo furgoneta izan zela. Furgoneta hori, gero, Eskola Profesionalari eman zioten. Gorria zen jatorriz, baina, gero urdinez margotu zuten eta *Pájaro Azul* izena eman zioten. Arizmendiarieta leku denetara eramaten zuten furgoneta horretan; denetik egiten zuten, egia esan. Furgonetak egin zuen ibilbidea lantegiaren ibilbidearekin lotu dugu azalean.

Beste hainbat bitxikeria ere jasotzen duzue, adibidez, atal batek *Europako despisteak* izena du...


Pentsatuz akaso jende guztiak ez duela liburu osoa irakurriko, kapitulu bakoitzean anekdota antzeko batzuk sartu ditugu. Izan ere, besteak beste, makinak-eta muntatzera askotan joan ohi dira kanpora, kultura asko ezagutu dituzte Fagor Arrasateko langileek, eta gauza asko eta asko pasatu izan zaie. Zuk aipatu duzuna da anekdota horietako bat.

Mahai-inguru bat ere bada-tor liburuan...

Ahalegindu ginen batzen hainbat belaunalditako langileak: erretiratuak, 40-50 urte ingurukoak eta gazteak. Saiatu ginen kooperatibismoaren baloreak lantzen, lehen zeukan zentzua eta orain daukana... horrelakoak galdetu genien.

Pozik daude emaitzarekin liburuaren bultzatzaileak?

Orokorrean kritika onak izan ditugu. Jakina, denen gustukoa ez da izaten, baina, orokorrean gustura geratu dira. Formatu aldetik-eta oso polita geratu da: kolore ona, argazkiak...



“Enpresa barruan sartu eta, besteak beste, 50 elkarrizketa baino gehiago egin ditugu”

“Azaleko argazkia mitikoa da; lantegiaren aurreneko furgoneta da”

“Orokorrean kritika onak izan ditugu; eta formatu aldetik-eta liburu ondo geratu da”

Historia, anekdotak, eranskinak...

Egoera sozio-ekonomikoa gordina zen eta irtenbide guztiak bilatu beharra zegoen. Arizmendiarietak Eskola Profesionalaren bidez Arrasateko herrian ereindako hazia ernetzen hasia zen. Ez ziren urte errazak izango baina ibilbidea ondo egiteko bakarrik ibiltzen ikasi beharra zuten. Beste eredu baten bila enpresa egiteari ekin zioten, ilusioa eta indarra lagun.

Horrela hasten da Fagor Arrasateren gaineko liburu. Fagor Arrasate Kooperatiba Elkarte 1957an sortu zenetik gaur egunera arteko historiaren kontakizuna dakar. Euskaraz eta espainolez dago idatzita, eta ia 400 orrialde ditu. Zortzi kapitulutan dago banatuta, kronologiaren arabera. Idazleek kontatu diguten moduan, gertaera inportanteen arabera hasten edo bukatzen dira kapituluok. Era berean, kapitulu bakoitzean anekdotaren bat kontatu dute, letra zuriekin eta fondo

beltzarekin nabarmenduta. Eta, kapitulu bakoitzaren hasieran atal horretan ageri diren edukien zerrenda irakur daiteke, oso modu kuriosoan aurkeztuta. Horrez gainera, liburuaren bukaera aldera eranskinak ere badira. Adibidez, zenbait langileren arteko mahai-ingurua; hezkuntza eta kooperatiba sustapenerako fondotatik Fagor Arrasatek emandako diru laguntzen berri; lantegia sortu zenetik 2003. urtera arteko Kontseilu Errektoreko kideen zerrenda; eta, azkenik, bazkide guztien zerrenda.

1.700 ale argitaratu dituzte. Horietatik 1.000 inguru bazkideen artean banatzeko dira; beste ale batzuk gainerako kooperatibetan eta unibertsitatetan banatu dituzte; eta gainerakoak Hire liburu-dendan daude salgai, 18 eurotan. Bukatzeko, ezin aipatu barik utzi liburuan erabilitako formatua oso erakargarria dela.

EAJ-EA, Aralar eta Ezker Batua izango dira gobernuan, seguru aski

U.M.

EBk, Aralarrek eta EAJ-EA koalizioak lortu dute hitzarmena Gobernu batzordea osatzeko. Iragarritako moduan, datorren astean egingo dute osoko bilkura udaletxean. Goizean goiz izango da, 09:00etan. Batzordeen berri emango dute, besteak beste.



ARRASATE PRESS

Astelehenean, hilak 21, 09:00etan izango da osoko bilkura.

Joseba Ugalde, martitzenean. Egun horretan proposamenak mahai gainean jarri eta azken negoziatioak egiten ibili ziren, akordioa lortu arte.

EGUAZTENEAN

Eguaztenean, bi politikariek akordioaren berri eman zieten gobernu osatzeko deituta zeuden alderdiei. Hala, EAJ-EAk, Aralarrek eta Ezker Batuak bezperako akordioak zekartzan aldatketak onartuz gero, Gobernu

batzordea osatuko dute hiruren artean. Edozelan ere, albiste hau idaztean, oraindik ez zegoen horren berririk.

Aralarri dagokionez, Joxe Etxeberria ordezkariak irratian esandakoaren arabera, egunotako prozesuan herriaren zenbait arazori erantzuna bilatzen dabilta, eta erantzun hori ahalik eta zabalena eta egokiena izaten ahalegintzen. Hala, herriarengatik zenbait egin gura duten taldeek ezin dute prozesu hori alde batera utzi.

Makina bat bilera egin behar izan dituzte Ezker Batuko ordezkari Joseba Ugaldek eta Inazio Lakuntza alkateak gobernu osatzeko akordioa lortzeko. Hain zuzen, astelenerako deituta zegoen batzorrera ez zen agertu Ezker Batua, EAJ-EA koalizioaren proposamenarekin ados ez zegoelako. Kontua da EAJ-EA koalizioak Gizarte Zerbitzuak, Emakume batzordea eta Gazteria eskaini ziola Ezker Batuari. Ez, ordea, Ingurumena. Joseba Ugaldek Arrasate Irratiari adierazi zion hori egitea azken lau urteotan egindako lana mesprezatzea dela. Edozelan ere, Joseba Ugalde bera egon zen asteleheneko batzarrean, alkateak hala eskatu ziolako.

Ezker Batuaren desadostasunaren aurrean, Inazio Lakuntzak beste batzar batera deitu zuen

Pablo Letona badoa, ia mende erdi hemen egin eta gero

U.M.

Bedoñan eta Arrasateko inguruetan 45 urtez abade lanak bete eta gero, jaioterrira itzuliko da Pablo Letona eskoriatzarra. Aretxabaleta-Eskoriatza aldean abade gutxi dagoela eta doa hara.

Gaur egun abade bakarra dago Eskoriatza eta Aretxabaleta inguruetan lan egiteko; eta dagoen bakar hori badoa, domingotar sartu behar da-eta. Orain, arazoa da Leintz bailara hartan ez dagoela abadea ordezkatzeko besterik; horren aurrean, erabaki dute bestelako herrietatik eramatea. Hala, Arrasatek Pablo Letona joango da eta Zumarratik Jesus Ortiz de Urbina. Hain zuzen ere, zumaragarrik parroko lanak beteko ditu Leintz bailaran, eta Pablo Letona haren apaiz lagunkide izango da.

Pablo Letona berak adierazi digun moduan, iraila inguruan


joango da Arrasatek egokitu dioten destino berrira.

IBILBIDE LUZEA

24 urte egiteko zituela apaiztu zen Pablo Letona, Saturraranen, Gas-teizen eta Donostian ikasketak egin ostean. Misioetara joateko asmoa zuen, baina, ezbehar familiar baten ondorioz, hemen gertuan geratzea erabaki zuen. Hala iritsi zen Arrasatera.

Arrasaten egin dituen 45 urte horietan Bedoñako abade izateaz gain, San Frantzisko Xabier Ikastolan eta Eskola Politeknikoan erlijioarekin, etikarekin eta euskal kulturarekin lotutako gaiak erakutsi ditu. Irakasten eman ditu hemen egondako ordu-rik gehienak. Eta Urribarriko eta Musakolako abade ere izan da.

Kontatu digu pena emango diola Bedoña eta Arrasate uzteak, baina, aldi berean, gaineratu digu hemendik aurrera izango duen erronka berriari aurre egin behar izateak poztu egiten duela.



MAIDER OSA

45 urte egin ditu Pablo Letonak Arrasaten.



Madalena jaiak Maalako Errabalean

Iritsi dira, beste urtebetez, Madalenak! Domekan eta martitzenean (uztailak 20 eta 22) ospatuko dituzte. Hala, domekan, 12:00etan, San Frantziskon meza esango dute errabalean hil diren guztien oroimenez. Eta gero, 13:00etan, errabaleko erretiratuendako luntxa izango da Plus Ultrán. Astelehenean, berriz, 17:00etan umeendako jolasak eta txokolate-jana izango dira; 19:00etan hasita, txikiteoa; 21:00etan, afaria egingo dute errabalekoek; 22:30ean hasita erromeria izango da eta 23:00etan suzko erruberak.

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Zarugalde 38 • Tel.: 943 79 13 78

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32



IKER BARANDIARAN

Oraingo astean hasi dira Zurgin kantoiko galtzada-harria aldatzen; hil bukaerarako amaitzea espero dute.

Herrian egiten dabiltzan lanetako batzuk hil bukaeran amaituko dituzte

U.M.

Azkenaldian lanak eta lanak ikusten gabiltza herriko kaleetan. Zarugalden, alde zaharrea eta Gelma inguruan, besteak beste. Baina, dagoeneko lan batzuk bukatu dituzte eta beste batzuk bukatzeaz daude.

Herrian horrenbeste lan ikusita, batzutan badirudi Arrasate altxatzen dabiltzala, eta lanek ez daukatela akaburik. Kontua da zenbait lan egiteko eguraldi sikua aprobetxatu beharra dagoela, eta, jakina, sasoi hau izaten da egokiena. Ondorioz, askotan lan asko pilatu egiten dira. Hain zuzen, orain gertatu den moduan.

Baina, lanak aurrera doaz, batzuk, behintzat bai. Are gehia-

go, Zarugalde kaleko lanak astelehenean hasi ziren eta martitzenean bukatu. Kalearen zoru zaharra kendu eta zoladura berria ipini zioten; hala kaleak zituen zuloak konpondu egin dituzte.

Horrez gainera, alde zaharrean ere lanean dabilta joan den maiatzaz geroztik. Zenbait guntako galtzada-harria aldatzen dabilta. Orain artekoa kareha-

rrizkoa zen, eta euriarekin oso labainkorra bilakatzen zen, arriskutsua. Horren aurrean, Olarte eta Zurgin kantoietan, Ferriasko eta Iturriozko zati banatan eta Gazteluondoko espaloian zorua aldatzea erabaki zuen Udalak. Hain zuzen, oraingo astean Zurgin kantoiko galtzada-harria aldatzen hasi dira, falta zaizkien bakarra; eta espero dute hil bukaerarako lan guztiak amaitzea.

GIPUZKOA ETORBIDEA

Eta, bukatzekotan dabiltzan beste lan bat Gipuzkoa etorbideko hormarena da, Gelmatik apur bat gorago dagoenarena, alegia. San Juan jaiak baino apur bat lehenago hasi ziren lanak egiten, pareta hori sendotzeko asmoarekin. Hil bukaerarako bukatzea espero dute.

*Alde zaharreko
galtzada-harria
aldatzeko lanak hil
bukaerarako
amaitzea espero dute*

Abiarazi dute lanpostu egonkorak sortzeko laguntzen programa

U.M.

Laugarren urtez, lanpostu egonkor berriak sortzeagatik diru laguntzak eskatzeko aukera ematen die Arrasateko Udalak enpresei. Astelehenean zabaldu zuten eskaerak egiteko epea.

Arrasateko enpresa txikiek aurrean ere diru laguntza eskatu diezaioke Udalari lanpostu egonkorak sortuz gero. Astelehenean zabaldu zuten laguntzok eskatzeko epea, eta interesa dutenek eskari orriak Udaleko webgunean edo udaletxean bertan

eskura ditzakete.

Aurten, enpresek 3.600 euroko laguntza jaso dezakete sortutako lanpostu bakoitzarengatik. %15 gehiago hartutako langilea emakumea, iraupen luzeko langabea edo 45 urtetik gorako langabea baldin bada. %20 gehiago %33ko edo hortik gorako elbarritasuna duten langileak hartuz gero. Eta, %15 gehiago enpresa onuradunaren jardura nagusia nekazaritza-abeltzaizaintzako sektoreari badagokio.

Hori bai, laguntza eskatzen duten enpresek baldintza jakinak bete beharko dituzte. Hala nola, lantokia, derrigorrez, Arrasaten

izan behar dute; enpresa berria izanez gero gutxienez, lanpostu bat edo gehiago sortu beharko du. Eta, lehenagotik eraturako enpresa bada, 15 langile baino gutxiago izan behar ditu, eta gutxienez, hiru lanpostu sortu behar ditu.

HELBURUAK

Herriko garapen ekonomikoari laguntzea eta enplegua sustatzea dira diru laguntza horien helburu nagusiak. Lehen esandako moduan, laugarren urtez emango dituzte. Hala, hasi zirenetik (2.000. urtean) gaur egunera arte ia 50 lanpostu egonkor sortzeko laguntzak eman ditu Udalak.

Bi urte barru ia 600 aparkaleku berri egongo dira

U.M.

Abuztuaren 15etik aurrera aparkalekua eskuratzeko izena eman ahal izango da. Interesaduenak Bikani enpresara jo beharko du. Datozen bi urteotan 595 aparkaleku berri izango dira Arrasaten.

Garibain eta Laubiden egingo dituzte aparkaleku berriak. Guztira, 595. Hauetatik 445, 50 urtetako lagapen erregimenean eskuratzekoak izango dira. Hau da, eskuratzeko duenak 15.000 euro ordaindu ostean, hurrengo 50 urteetan erabiltzeko eskubidea izango du. Gainerako 150 apar-

kalekuak txandakakoak izango dira. Lanak hasi eta 18 hilabete epea du bukatzeko Construcciones Bikani enpresak; lanon esleipena jaso duen enpresak.

Hala, lagapen erregimeneko aparkaleku edo garaje bat lortu gura duenak datorren abuztuaren 15etik aurrera aipatutako enpresara jo dezake eta han izena eman. Erreserbak egiteko, aparkalekuaren kostuaren %25 ordaindu beharko da.


Garibain, 450 aparkaleku erakiko dituzte, 300 lagapen erregimenekoak, eta gainerakoak txandakakoak. Laubiden, berriz, lagapen erregimeneko 145 aparkaleku egingo dituzte.

LABUR

Prentsa askatasunaren aldeko ekimenean parte hartzera joateko autobusa izango da

Bihar, zapatua, prentsa askatasunaren aldeko giza katea egingo dute Donostian; Gara egunkaria ixteko dagoen arriskua dela-eta. Arrasatetik hara joateko deialdia egin dute eta autobusa ipini dute. Hain zuzen, autobusa 16:00etan aterako da, Garibaitik. Zazpi euro balio du. Eta, betiko moduan, Iratin eman beharra dago izena.

Donostiako giza katea 18:00etan izango da; bi lekutatik aterako da: bata Haizearen Orrazitik, eta bestea pasealeku berrian dagoen Oteizaren eskulturatik.



Sahararrak gure artean dira

Joan den asteaz geroztik Arrasaten dira Saharako kanpalekuetatik etorritako zortzi umeak. Tindoufeko, Aaiungo eta Asmarako kanpalekuetatik etorri dira, bi hilabeterako. Hala, martitzenean Inazio Lakuntza alkateak harrera egin zien. Eta hemendik aurrera ez dute aspertzeko astirik izango. Harrera-familiekin hara eta hona ibiltzeaz gain, Udalaren eta Txatxili-purdi elkartearen laguntzarekin bestelako ekimenak egingo dituzte: igerilekura joan, denok batera bazkaltzera, ludotekara... Seguru aski, emandako guztia ondo hartuko dute saharar gaztetxoek.


Egitarau aberatsa eta auzotarren eta gainerako herritarren parte-hartze handia

IKER BARANDIARAN

Santa Marinako jaiak bukatu dira. Inoiz baino egitarau osoagoa izan dute, eta auzotarren eta Arrasateko herritarren parte-hartzea oso handia izan da. Auzotarrek honako hau azpimarratu dute: adin guztietako auzotarrendako ekintzak antolatu dituztela, hain zuzen.

Aurtengo Santa Marinako egitaraua ikustearekin bat, argi dago adin guztietako auzotarrendako ekintzak antolatu dituztela. Eta auzotarrek probetxua atera diete jaiei, parte-hartzea oso handia izan da-eta. Are gehiago, Arrasateko gainerako herritarrek ere hartu dute parte, behin baino gehiagotan Santa Marina-ko jaietara igo dira-eta.

Mariachi Emperadores taldeak Agerre plazan egin zuen kontzertuak ikusle asko izan zituen, baita Erro enpresak antolatutako pilota partiduek ere. Bestalde, auzoko umeeek hainbat joko, txapelketa, puzgarri eta beselako izan dituzte. Eta erretiratuek ere ondo heldu diete jaiei; ekitaldi ugari izan dituzte aste bukaeran Santa Marinan.



ARITZ ALTUBE

Urtean zehar gutxitan izaten da Erro enpresak antolatzen dituen jaialdiekin goatzeko aukera, baina Santa Marinako jaietan ez zuten kale egin eta ikusgarria izan zen.



TOKI ARGÍ

Gazteek, helduek eta erretiratuek dantzan egiteko aukera mordoia izan zituzten.



TOKI ARGÍ

Toki Argi erretiratuen elkarteak eskulanean erakusketa ikusgarria antolatu zuen; jende askok ikusi zuen.



TOKI ARGÍ

Urtero moduan, erretiratuen bazkariak lagun ugari batu zituen; erretiratuei omenaldia egin zieten.

TOKI ARGI ERRETIRATU ELKARTEKOAK CABARGENON

Toki Argi erretiratu elkarteak Kantabrian izan ziren ekainean. Bi eguneko txangoa egin zuten, eta ondo aprobetxatutako bi egun izan ziren. Lehenengo egunean hondartza izan ziren, Nojan. Bigarren egunean, berriz, Cabarcenoko parkera joan ziren, hango animalia eta parajeaz gozatzera. Goiza Cabarcenoko parkean igaro eta gero Astilleren bazkaldu eta etxerako bidea hartu zuten.



URTEAN BARRENA LORTUTAKO DIRUA INDIKO ESKOLA BATERA

Arizmendiko Gazteluondo guneko 4. mailako ikasleek gogotik egin dute lan amaitu berri den ikasturtean. Ekintza berezi mordo egin dituzte: besteak beste, ingelesez egindako antzerkia eta merkatu txikia. Ekintza horietan lortutako diruari erabilpen ezin hobea eman diote, Indiako Meshana Gujerat herriko eskolari eman diote-eta. Duda barik, txalotzeko moduko ekintza Gazteluondoko gazteek egin dutena.



EA NOR DEN GAUZA BIRRAITONA LANAK HAIN ONDO EGITEKO!

Sergio Crespok iloba eta bilobekin ospatu zuen uztailearen 12an urtebetze eguna, baina badaezpada ez dugu jarriko zenbat urte egin dituen, bestela haserretu egingo da-eta. Egia esan, horrelako gazteria ondoan edukita gustura egiten dira urteak. Cresporen familiak zoriondu egin gura du, eta guk geuk ere gauza bera egin gura dugu. Hori bai, hurrengo urtebetetzea biloba bat gehiagorekin ospa dezala!

ELKARRIZKETA

GORKA BERGARETXE 'PITU' / 'SNOWBOARD'-A

"Hasieran zaletasuna baino ez da 'snow'-a, baina gero zerbait gehiago bilakatzen da"

XABIER URZELAI

Uztaila izan arren, Gorka *snowboard*-a egiten dabil. Orain dela gutxi joan da Alpeetara, eta neguan ere han izan da. Urte asko daramatza taula gainean, baina aurten hainbat txapelketatan izan da, eta dagoeneko babesleak ere baditu. Akaso, *snow* marken publizitate kanpainaren baten ikusiko duzue, modelo.

Denboraldi berezia izan da aurtengoa, ala?


Bai. Orain arte Pirinioetan ibili naiz, eta aurten Alpeetan eman dut negua. Alpeetan beste mota bateko mendi eta estazioak egoteaz gain, elurrarekiko zaletasun handiagoa dago, eta jendea seriotasun handiz entrenatzen da. Pirinioetan dagoen maila eta Alpeetan dagoena oso ezberdinak dira.

Hainbat txapelketatan hartu duzu esku. Zer moduz?

Ondo, oso ondo. Joan den urtean jokatu nuen lehenengo txapelketa. Pirinioetan izan zen, eta gustura ibili nintzen. Aurten hiru txapelketatan izan naiz: *Big Jump* proban birritan eta *Half-Pipe* delakoan behin. *Big Jump* proban, lehenengo lasterketan bigarren izan nintzen eta bigarren lasterketan lehena. *Half-Pipe* proban, berriz, laugarren sailkatu nintzen.

Horrelako emaitzekin, hurbilduko zitzaizun norbait.

Bai. Txapelketetan emaitza onak eginez gero, kirol babesleak berehala hurbiltzen zaizkizu, eskaintzak eginez. Badaude batzuk daukaten pentsatzeko



XABIER URZELAI

"Etorkizunean ez dut larregi pentsatzen; batek daki bihar non egongo garen"

"Zaletasun bat asko gustatzen zaizunean horretan hobetzen saiatzen zara; hori da nire helburua"

"Jendeak janzkera zaintzen du, baina urte osoa 'snow'-a egiten daramagunok ez horrenbeste"

moduagatik ez dutela txapelketetan parterik hartzen, eta hala ere kirol babesleak dituzte. Horretarako, baina, oso ona izan behar da eta *snow*-a egiteko oso estilo berezia izan behar da.

Negua Alpeetan emanda dezente hobetuko zenuen, ba.

Egia esan, bai. Alpeetara *snow*-a egiteko asmoarekin joan nintzen, eta hobetzen saiatu naiz. Jauziak egiten asko hobetu dut, baita *Half Pipe* proban ere. Horretarako, baina, asko ibili behar da, ez dako beste biderik.

Zer dauka *snow*-ak bizitza horren inguruan antolatzeke?

Galdera ona! Horrelako galdetarak ez diot neure buruari egiten. Zaletasuna da, eta apurka-apurka zaletasuna baino zerbait gehiago bihurtzen da. Hasieran asteburuetan bakarrik joaten zara, eta azkeneko elurretan ematen duzu ia urte osoa. Aurten 200 egun inguru egin ditut elurretan. Motibazio eta ilusio kontua baino ez da.

Udan eskiatzen ibiliko zara, eta negurako ze asmo?

Neguan Espainiako *Half-Pipe* proban hartuko dut esku. Bi urtean behin egiten den txapelketa da, eta hortxe ibiliko naiz. Gustura joango nintzateke Alpeetara, baina hemengo babesleak badituzu, hemen ibili behar duzu, eta seguruena Andorran hartuko dut etxea.

***Snowboard*-etik bizi izaterik bai?**

Gutxi daude kirol horretatik bizi direnak; bai publizitatetik edo bai txapelketetatik. Baina beste gauza asko egin daitezke: eskolak eman, ordezkarri lanak egin...

Maria Jose Gilek emaitza onak lortu ditu Puerto Ricoko txapelketan

Domekan, beterano mailako Munduko Atletismo Txapelketa jokatu zuten Puerto Ricon. Arrasatek ordezkarri bat izan du txapelketa horretan: Maria Jose Gil. Atletia mondragoetarako txapelketa biribila egin du, parte hartu duen bi lasterketetan emaitza onak eskuratu ditu-eta: hain zuzen ere, kros lasterketan bosgarren izan zen eta 5.000 metroko lasterketan atleta arrasatearra seigarren postuan helmugaratu zen. Bi emaitza horiekin, Maria Jose Gilek denboraldi bikainari jarraipena eman dio, aurreko hilabeteotan esku hartutako lasterketetan, besteak beste, Euskadiko onena izate

tea lortu du-eta.

Maria Jose Gilez gain, beste zazpi atleta euskaldun izan dira Puerto Ricon jokatuako txapelketan.

LAU GIPUZKOAR ETA LAU BIZKAITAR

Munduko Atletismo Txapelketan zortzi euskaldun izan dira: lau gipuzkoar eta lau bizkaitar. Aipatzekoa da Patricia Nadal durangarrak egindako lana: bizkaitarrak urrea eskuratu zuen pertika-jauzian; munduko txapeldun, beraz, 2,90 metroko jauziarekin lortu zuen urrezko domina.

Juanjo Mendizabal elorriarra, berriz, bosgarren izan zen

jabalina jaurtiketan, eta Espainiako errekorra hautsi zuen. Jose Luis Romero durangarra seigarren izan zen 400 metroko lasterketan eta Josefina Boughen hamargarren disko jaurtiketan.

Gipuzkoarren artean, Maria Jose Gilek lortu zuen emaitza onena. Kontxi Laso donostiarra zazpigarren izan zen disko jaurtiketan. Itziar Aristi donostiarra zortzigarren izan zen mailu jaurtiketan eta hamargarrena pisu jaurtiketan. Azkenik, Juantxo Goñi iruindarra hogeita seigarren izan zen 100 metroko lasterketan. 2005ean Donostian izango da Munduko Txapelketa.



ARRASATE PRESS

Maria Jose Gilek denboraldi biribila du aurtengoa.

FUTBOLA

Mondrako taldeek aurrendenboraldia hasi dute, eta bi astez entrenatuko dira

Joan den astean Mondrako talde guztietako jokalariek elkartu ziren Atxabalpen, eta datorren denboraldiaren berri jakin zuten.


XABIER URZELAI

Mondra Futbol Taldea osatzen duten zortzi taldeak lanean dira dagoeneko. Uztaileko azken bi asteak entrenatzeko aprobetxatuko dituzte, eta talde nagusiak abuztuaren 18an hasiko du aurrendenboraldiaren bigarren zatia. Liga Txapelketa, berriz, irailaren 8an hasiko du.

Mondrako zortzi taldeak lanean izango dira uztailean. Klubeko Zuzendaritza datorren denboraldia prestatzeko lanean izan da, eta dagoeneko Mondrako zortzi taldeak osatuta daude.

PREFERENTE MAILAKO TALDEA

Preferente mailan izango den taldea Josu Zubiak entrenatuko du. Dabid Zaitegiren postua, berriz, Neca Galánek beteko du. Taldean hainbat jokalarik berri izango dira: Mikel Calvo, Eibarko gazte mailatik etorritako atezain soraluzetarra; Ignacio Larrañaga, Soraluzeko aurrelaria; eta Andres Castillejo, aurreko denboraldian Eibarko gazte mailako taldean izan den jokalarik mondragoetarra. Horrez gain, gazte mailako lau jokalarik ere talde nagusiarekin egingo dute aurrendenboraldia: Kepa Arkauzek, Jon Loitik, Markel Gonzálezek eta Mikel Gangoitik. Aurrendenboraldia



Joan den egunean, uztailearen 10ean, Mondrak datorren denboraldian izango dituen zortzi taldeak elkartu zituen.

egin eta gero erabakiko dute lau gazte horietatik zeintzuk geratuko diren goiko taldean.

Horiek dira talde nagusian izango diren jokalarik berriak, baina oraindik erabaki barik dago orain arte egondako jokariari-

tik nortzuek jarraituko duten. Ikasketak direla-eta jokalarik batzuek taldea utziko dute, eta Iker Lazpiurrek eta Ruben Ruedak oraindik ez dute erabaki taldean jarraituko duten edo ez. Hori guztiori oraingo astean gera-

tuko da erabakita. Gainerako taldeei dagokienez, ohorezko gazte mailako taldeak Euskal Liga izango du helburu. Aurten helburua lortzekotan izan dira, eta seguru datorren denboraldian ere goiko postuetan izango direla. Hori lor-

tzeko ardura Esti Loitirena izango da, orain arte emakumeen taldeko entrenatzailea. Ez da bakarrik egongo, baina, hainbat urtean Mondrako atezain izandako Arkaitz Gainzarain izango du, eta lagun.

Gazte mailako bigarren taldea Antxon Losadak zuzenduko du, Txelis Ibarguenen laguntzarekin. Ohorezko kadete mailako taldea Abel Mastrek zuzenduko du, eta Fernando Urangarena izango da kadete mailako bigarren taldea entrenatzeko ardura. Infantiletan, berriz, Jose Luis Arkauz eta Loren Fernández izango dira; Alberto Pérez ibiliko da alebnetako taldearekin, eta Jon Loiti neskekin. Alberto Pérezek, baina, alebnetako taldea zuzentzeaz gain, beste ardura bat ere izango du, klubeko kirol arduraduna da-eta.

IRAILEAN, LANA GOGOTIK

Preferente mailako taldeak abuztuaren 18an hasiko du aurrendenboraldiko bigarren zatia, eta Josu Zubiaren mutilek gogotik egin beharko dute lan. Liga Txapelketa irailaren 8an hasiko da, baina lehenago lagun arteko hainbat partidurak jokatu dituzte. Abuztuaren 23an Ondarroako Aurrea taldearen kontra jokatu dute, Atxabalpen, eta abuztuaren 28an Bergarako Torneoan izango dira. Arrasate Hiria Txapelketa, berriz, abuztuaren 31n izango da.

Arrasate Kirol Proiektuko neska-mutikoak Burgostik itzuli dira

Arrasate Kirol Proiektuko neska-mutirik Arrasaten daude dagoeneko. Bederatzi egun egin dituzte Espinosa de los Monterosen, eta aurten ere pozik baino poziago bueltatu dira, esperientzia polita izan da-eta. AKPkoek bederatziz egun egin dituzte Burgosen, eta han, besteak beste, kirol mordo egiteko aukera izan dute.

BURGOSEN EZIN HOBETO

Arrasate Kirol Proiektuko udalekuak Espinosa de los Monterosen egin dituzte, Burgosen. Ez da lehenengo aldia udalekuak han egiten dituztela; izan ere, oso leku aproposa da. Kanpamentuko aterpetxean 50 lagunendako tokia dago, baina Arrasateko 104 neska-mutikoak kanpin-dendatan izan dira. Eta ez dira bakarrik egon; kanpamentuan Santanderko eta Galiziako beste talde batzuekin egin dute bat.

Udalekuak hasi aurretik, AKPko begiraleek kirol ekintza

Kirol ekintza bereziak egiteko monitore espezializatuak izan dira gaztetxoekin

asko egiteko asmoa zuten, eta gero, udalekuan aldaketa batzuk izan badira ere, aurretik programaturako kirol ekintza guztiak egin ahal izan dituzte.

Horrela, kirol ekintza berezien artean bela, piraguismoa, espeleologia, mendi bizikleta irteera, rapel-a eta aurten lehenengo egin duten multi-abentura parkeko ekintzak izan dira. Bela eta piragua Arijako klub nautikoan egin dituzte. Rafting-a egitera, berriz, Arroyora joan ziren,

Ur 2000 enpresako profesionalen. Espeleologia egiteko Sencilotik gertu dagoen kobazuloa aukeratu zuten. Esan behar da kobazuloan lokatz asko zegoela, eta gaztetxoak goitik behera zikinduta itzuli zirela. Mendi bizikletako irteera kanpamentu inguruan egin zuten, eta rapel-a egitera kanpamentu gainean dagoen El Bedon mendira joan ziren. Aipatu dugu aurten lehenengo aldiz multi-abentura parkera joateko aukera izan zutela. Parke hori Sobron herrian dago, eta esperientzia oso positiboa izan da.

HAINBAT ENPRESAREKIN LANEAN

Horrelako ekintzak egiteko AKPkoek hainbat enpresarengana jo dute. Horrela, kirol ekintza bakoitzaren egiterakoan, espezializatutako monitoreak izan dira gaztetxoekin. Jakina, aurrerago aipatutako kirol ekintza bereziak izan dira, horiez gain, beste ehunka jolas egin dituzte-eta.



Espinosa de los Monterosen egindako argazkia.

DANTZA/ Nazioarteko folklore emanaldia antolatu dute Monterron parkean

Eguaztenean, Kenyako eta Yakutiako dantzen emanaldia egongo da ikusgai Monterronen

IKER BARANDIARAN

Eguaztenean, uztailaren 23an, nazioarteko dantzen emanaldia antolatu dute Monterron parkean. 22:30ean, atzerriko bi taldek, Sandal eta Algap Kenya taldeek, Kenya eta Yakutiako dantzen emanaldia egingo dute. Izen eta ospe handiko taldeak dira biak.

Joan den urtean bezala, aurten ere Arrasateko Udaleko Kultura Sailak nazioarteko dantza emanaldia antolatu du uztailerako. Eguaztenean, uztailaren 23an, Yakutiako-Siberia ekialdea-Sandal taldeak eta Kenyako Algap Kenya taldeak dantza ikuskizun bana eskainiko dute Monterron parkean.

KENYAKO DANTZA TIPIKOAK

90eko hamarkada hasieran sortu zuten, Nairobi, Algap Kenya taldea. Nairobi Antzerki Eskolan ikasitako artistak -abeslariak, musikariak eta dantzariak- batu, eta Ekialdeko Afrikako dantzak berreskuratzen eta ezagutzera ematen hasi ziren. *Masai* tri-


buaren dantza tipikoez gain, beste tribu batzuen dantzak ere berreskuratu dituzte: *Urutu, Borana, Kikuyun...*

Ikuskizunetan dantzariek erabiltzen dituzten jantziak oso ikusgarriak eta koloretsuak dira: lumak, adarrak, lehoinabar larrua, lehoi adatsa... Musika instrumentuak ere oso bereziak dira: banbuz egindako txirulak, zortzi soka dituzten *nyaiti*-ak, gazela adarrekin edo zuhaitzen sustraiekin egindako txirulak, Bantous danborrak, eta beste batzuk. Europako hainbat herrialdetan egin dituzte emanaldiak, eta honako hau Espainiako Estatura datozen lehenengo aldia da.

ESKIMALAK ERE ETORRIKO DIRA

Yakutia Siberiako ekialdean dago, eta Sandal taldea hangoa da. Yakutiako Nekazaritza Sailak sortu zuen taldea, 1998an. Talde horren zuzendaria Katakov Stanislav da.

Sandal taldeak Yakutia errepublikako dantza folklorikoak eskaintzen ditu. Dantza horiek Yakutiako erritualak irudika-



ARRASATE PRESS

Irudian, Yakutiako-Siberia ekialdea-Sandal taldeko partaideen ikuskizuna.

tzen dituzte. Zuzenean, musika instrumentu tradizionalak jotzen dituen orkestra bat izango dute lagun. Orkestraren izena Nural da, eta Zakharova

Nadezhdak gidatuko du. Orkestra horrek honako instrumentu hauek erabiliko ditu: *homus* izeneko metalezko instrumentuak, larruz egindako danbolinak, hai-

ze-instrumentuak eta *yakut* biolinak, besteak beste. Sandal taldeak Siberiako ekialdean dauden kulturek ohiko dituzten erritualak irudikatuko ditu.

ELKARRIZKETA

JON GURRUTXAGA/ARIMA BELTZA TALDEKO ABESLARIA

“Rock musikara hurbildu garen arren, bluesaren esentziari eutsi diogu”

I.B.

Gaur, egubakoitza, Arima Beltza taldeak kontzertua egingo du Ferrerias kalean. Elgoibarko talde horrek *Blues sustraia* diskoa aurkeztuko du. AEDk antolatu du kontzertua, Kultur Erroren bitartez.

Zer-nolako bilakaera izan du Arima Beltza taldeak 1997tik gaur egunera arte?

Talde sortu genuenean, nahiko blues klasikoa egiten genuen, eta bertsioak egiten hasi ginen: Jon Mayall, Eric Clapton, Cream, eta abar. Denborarekin, rockera hurbildu gara, nahiz eta bluesaren esentziari eutsi. Horregatik, azkenengo CDari *Blues sustraia* izena jarri diogu.

Bi disko dituzue kalean. Zein da gaur egun daukazuena soinua?

Lehenengo diskoa klasikoa da. Bigarrenak, berriz, errit-

mo pisutsuagoak dauzka eta rock kutsu handiagoa du. Batez ere, blues-rocka egiten dugu.

Arrasaten aurretik eman duzue kontzerturen bat, Ferreriasen bertan, hain justu ere... Zer moduzkoa izan zen?

Joan den urtean ez zen jende askorik egon, baina bai ikusleak bai gu oso gustura ibili ginen; giro polita sortu zen. Baliteke oraingoan, bigarren diskoarekin, jende gehiago joatea.

Berezia da bluesa euskaraz abestea. Zer esango lukete bluesa asmatu zutenek zuei entzunez gero?

Beste askori moduan, arraroa egingo litzaieke, baina ondo hartuko lukete. Azken baten, euskarak fonetika berezia dauka. Dena dela, bluesa, soula eta jazz bezala, kantu espiritualetik dator eta sortu zuten esklaboek ere ez zuten ingelesez abestuko.

Badago bluesa euskaraz abesten duen beste talderik? Nik dakidala ez. Lehen, Lau


Behi taldeak *rhythm&blues* delakoa egiten zuen, baina uste dut aldatu egin dutela estiloa.

Orain dela gutxi arte bateria jotzaile eta abeslari izan zaitugu. Zelan moldatzen zinen?

Egia esanda, ondo moldatu izan naiz. Oso txikitatik abesten dut, eta 14 urterekin bateria jotzen ikasten hasi nintzenean, bateria jotzearekin bat abestu egiten nuen. Orain dela gutxi arte horrela jarraitu dut, baina egia da bateria jotzeko mugatu egiten zaituela, hainbat gauza egiteko gaitzagoa da.

Orain, berriz, bateria jotzaile berria hartu duzue eta zu abeslari zaitugu. Zuen zuzenekoak asko irabazi du?

Baietz uste dut. Lehen bateria jotzen nuenez, ezin nintzen askorik mugitu eta atzean egoten nintzen. Orain, aurreko aldean nago eta gainerako partaideak ere lasaiago daude musika jotzen. Orain gure kontzertuak ikusgarriagoak direla uste dut.



GAZTELUPEKO HOTSAK

Arima Beltza da blues-rocka euskaraz abesten duen talde bakarra.

BEHEKODENDATIK

Elisabeth Berezibar

KOPYPREST FOTOKOPIXA DENDAKUE

XABIER URZELAI

Mondragueko Kopyprest zabaldu aurretik Eibarren beste denda bat eukien. Mondragueko dendiek 13 urte dauko eta Eibarrekuek, barriz, 20. Dendan lanien hasi aurretik, baiñe, Elisabethek ETEOn ikasi euen, Administraziñue. Mondraguetarra da Elisabeth, Miatzerrekan jaixo zan, Salturri basarrixen.

Txikittan ze gure zeuen izen?

Erizain.

Eta oin, lanbide hori hartuko zeuke?

Ez, ez dauket pazientziarik.

Ze eskatuko zeuskio alkate barrixari?

Denda txikiñei lagunketako, erabaki danak gure kontrakuek izeten die-eta.

Drogak legalizauko zeuke?

Ba... ez dakit. Alde batetik bai, baiñe ez dauket oso argi.

Eta prostituziñue?

Bai, prostituziñue bai.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

Aspaldi ez naz juen zinera / Erretiari ixteko liburua da irakurri doten azkena / Musika lasaixe gustetan jat.

Nora juengo zitzake gustora?

Oin? Leku lasai batera.

Uharte batera ze hiru gauza eruengo zeuke?

Liburu bat, toalla bat eta baiñu-jantzixe.

Etxeko lan gorrotagarrixena?

Plantxie egittie.

Juergazalie zara? Juergarako leku bat?

Oin ez dot juergarik egitten. Arrasaten juerga ona egin leike.

Puntuau Mondragueko girue.

Zortzikue-edo.

Bizio bat?

Neure biziue erretie zan.

Abuzturako ze asmo?

Hamabost egun hartuko dittut kanpora jueteko.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Klientie ondo tratetan jakittie



“Lanien oso inportantie da klientie ondo tratetie eta klientiek ze gure dauen jakittie”

eta ze gure dauen jakittie.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeinikin?

Iñokin be ez.

Zergaittik egingo zeuke lanuztie gustora?

Geure herrixen alde, euskerien alde, hamengo egoerie konpondu dain...

Denpora librien ze egitten dozu?

Umiekin kanpora urten, mendire juen...

Janari eta edari gustokue-nak?

Danetik jaten dot nik; edateko, barriz, sagardaue gustetan jat.

Ze albiste irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

“Ikasliek lan haundixe emuten daue, eta beste lan asko be eukitten dittugu”

Pakie ailligau dala, baitte autodeterminaziñue be.

Profesionalekuek azterketetan ibilli die oin arte. Lanpetute ibilliko zitzen ba...

Bai. Ikasliek lan haundixe emuten daue, baiñe horretaz aparte, irakasliek, ikastetxiek eta enpresetako lanak be eukitten dittugu.

Ze da gehixen egitten dozuen lana?

Gehixenbat fotokopixak.

Eta irailien barriri be azterketak.

Bai, lan haundixe eukiko dogu: azterketak egongo die, eta, horrekin batera, ikastetxiek ikasturtie preparau biher daue, eta horrek be lan haundixe emuten dau.

NIREBIDAIAHURA/ Naiara Bengoa

Ekuatore Ginea / 2003ko maiatzetik ekainera arte

Joan den astean Ekuatore Ginean geratu ginen Naiararekin. Naiara lan egitera joan zen Ekuatore Gineara. Medikuntza tropikala ikasi, eta hango ospitaletan laguntzen ibili zen: “Batan ez nuen desnutriziorik ikusi. Umeek gaixotasun asko dituzte, baina ez dute goserik pasatzen, neurri handi baten mojek egiten duten lanari esker”. Afrikako lurralde hartan mediku lanak egitea ez da batere erraza: “Han petrikiloen (kuranderoak) praktika sendatzaileak eta magia beltzak indar handia dute. Haien iritziz, gaixo jartzeko arrazoia ez da birus bat harrapatu duzula; gaixotuz gero, norbaitek maldizioaren bat bota dizulako edo zerbait gaizki egin eta zigortu egin zaituztelako da. Azkenean ohitu egiten zara, eta badakizu horrekin egin behar duzula lan”.

Gaixotasunen gainean ere asko ikasi du Naiarak: “Lehen ere esan dut gosez ez dela inor hiltzen. Kontua da birus asko dagoela, eta ez daukatela babesik: sukar tifoidea, malaria... Horrelako gaitzek min handia egiten dute”. Naiararen esanetan, baina, horiek ez dira gaitz bakarrak: “Alkoholak sekulako eragina dauka han. Hango herritarrek eguneko bizi dute, eta askorendako alkohola da bizi duten egoera gogorra ahazteko modua. Alkoholo handia dago han”.


Naiarak argi dauka Ekuatore Gineara itzuliko dela, han jendea behar da-eta lanerako. Horrez gain, leku aproposa da gauzak ikasteko. Hala ere, oportetara joateko leku aproposa den galdetu diogu: “Egia esatearren, oso leku polita da. Sekulako beroa egiten du, eta oso leku hezea da. Hala ere, Espainiako Gobernuarekin ez daukate oso harreman onik, eta hara joatea ez da batere erraza. Izan ere, oportetara joateko ez da leku aproposa”.



“Alkoholismo handia dago han, eta gaitz handia da hori”

“Ekuatore Ginea ez da oportetara joateko leku aproposena”

XABIER URZELAI



Hango umeek ez dute goserik pasatzen, baina birus asko dago.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



E, TXO!

UDALEKUEN AGUR FESTA
Eguenean, uztailearen 24an, Txatxilipurdik udalekuen agur festa antolatu du. Oraindik ez dakite ziur ze ordutan izango den, baina arratsalde izango da eta, seguruenik, Monterroren.

ROCK KONTZERTUAK GAZTETXEAN
Gazte batzarrekoak Mauletik bueltatu dira eta gaur, egubakoitza, hasten den astebururako hainbat kontzertu antolatu dituzte.

Gaur, egubakoitza, Iruñeko Mermaid eta Eskoriatzako Kleenex taldeek kontzertua egingo dute gatzetxean. Mermaid Euskal Herrian stoner musika egiten hasi zen lehenengo taldea izan zen, eta bi disko grabatu zituen. Duela gutxi *Red led or death* izeneko diskoa grabatu dute, aurrekoak baino rock kutsu handiagoarekin. Talde horrekin batera Kleenex taldeak joko du. Horrek punk-hardcorea egiten du. Zapatuan, berriz, Iruñeko Basque Country Pharaons taldeak eta Holandako Floff Girl taldeek punk-rock doinuak eskainiko dituzte. Kontzertu hori ere gatzetxean egingo dute, eta biak 22:00ak aldera hasiko dira.

EUSKO JAURLARITZAREN BEKA DEIALDIA
Merkataritzako aholkulari teknikoak prestatzeko 25 beka emango ditu Eusko Jaurlaritzak. Bekak lortzeko beharrezkoa da EAEko biztanle izatea, 32 urte baino gutxiago izatea eta bekarekin lotutako unibertsitate titulua izatea. Uztailearen 21a baino lehen aurkeztu behar dira eskaerak. Informazio zabalagoa webgune honetan: www.euskadi.net.

GUREGAIK/ 'SKATE'-AREN GAINEKO FANTZINEA

Udalekuetako 'Kexatien Egunean' umeeek kexak aditzera eman zituzten


IKER BARANDIARAN

Txatxilipurdik antolatzen dituen udalekuetan, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko umeeek herrian gaizki dauden gauzen gaineko kexak aditzera eman dituzte.

Txatxilipurdiren udalekuetan umeeek ekintza mordoa egiten dituzte. Horietako asko, gainera, original samarrak izaten dira. Egun arrasatearrak ohituta daude umeeek kalean edozein joko egiten ikusten. Joan den astelehenean, esaterako, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko 50 bat umek, begiraleen laguntzarekin, herriaren gaineko hausnarketa egin zuten: zer ikusten duten herrian soberan eta Arrasateri zer falta zaion, hain zuzen ere.

Lehen Hezkuntzako umeeek herriaren gaineko hausnarketa egin dute udalekuetan

Zerrenda osatu, eta kexa eta aholku horien gaineko marrazki batzuk egin zituzten. Horren ostean, 50 bat umek kalejira zalapartatsua egin zuten, lapikoen tapekin, turutekin eta bestelakoekin. Herriko Plazan hasi eta alde zaharretik bira egin ondoren, Iturriotz kalean, Alai zinema aretoa zena-



Umeeek Alai zinema aretoa zeneko horma kexaz bete zuten.

ren horman, aurretik idatzitako eta marraztutako kexen eta aholkuen zerrenda eta marrazkiak itsatsi zituzten. Gatzetxoek idatzi zituzten kexen eta aholkuen artean honako hauek nabarmendu ditugu: parke akuatikoa eta zinema aretoa gura dituzte. Horrez gain, iturri, zakarontzi, igerileku, ikastola eta kulunka gehiagoren premia dutela idatzi dute.

Bestalde, zaborra lurretik botata ikusten dutela diote. Arazo hori konpondu beharra dagoela ondorioztatu dute. Herrian auto larregi daudela ere azpimarratu dute, eta auto gutxiago egongo balira, gusturago egongo liratekeela. Egun eguzkitsu gehiagoren falta ere sumatu dute, baina hori ez daki-gu Arrasateko agintariak konpondu ahal izango duten.

LOTSABARIK/ Arantzazu Ginart

"Umeeekin lan egiteak lotsa kendu dit"

I.B.

Arantzazu Ginart udalekuetan lanean dabil buru-belarri. Hala ere, *Lotsabarik* ataleko galde-tegiari erantzuteko tarte bat hartu zuen. Edozein kasutan, elkarrizketatxo hau egiteak lotsa eman diola esan zigun.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Lehenengo, ile apaintzaile, eta gero, irakasle. Oso gatzetxotatik nabil ilea apaintzen, eta udalekuetan ere apaintzen diot ilea bati baino gehiagori.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Arrasaten bizi izaten, seme-

alabekin, eta, ahal bada, publizitatearen alorreko lanen bat egiten.

• Zein da, zeure iritziz, adin ideala?

Nire ustez, 18 urtetik aurrera edozein adin. 21 urterekin 18 urterekin baino gusturago nago. Adin horretan hankak lurrean ditugu eta ez gara hain txoriburuak.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Familiari, lagunei eta ikasketei. Eta une honetan, batez ere, lanari.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Momentu honetan udalekuetako lanak arduratzen nau gehien.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Esate baterako, elkarrizketa honek. Dena dela, umeeekin lan egin ondoren, gauza gutxiak lotsatzen naute.

• Zure alde on bat? Eta alde txarren bat?

Pazientzia handia daukat eta lagun ona izaten saiatzen naiz; bestetik, ez naiz puntuala.

• Zure gorputzeko atal gustukoena?

Begiak eta ilea. Ilea asko zaintzen dut, eta garrantzi handia ematen diot.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Batez ere, ahoari, baita begiei ere.

• Arrasaten ligatzen da?

Bai, herri guztietan moduan.



ADINA: 21 urte • IKASKETAK: Publizitatea eta Harreman Publikoa • ZALETASUNAK: Antzerkia eta zinema ikustea, eta irakurtzea
LIBURU BAT: 'El perfume' • FILM BAT: 'La vida es bella' • MUSIKA TALDEA: The Police eta beste asko • KIROL TALDEA: Real

arbolapeta

arrasate
beinke

Aretz
Taberna
Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

HIES
BERRI
Tel.: 943 79 26 99

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarateko hotz eta beroak
Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Fabrikan erakusketa
Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82



ARRASATE
June Alberdi
Uztailaren 18an, urtebetetzea. Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Sergio Fernández
Uztailaren 14an, urtebetetzea. Zorionak! Ixabelen eta familiaren partetik.



ARRASATE
Ane Errondosoro
Uztailaren 18an, 9 urte. Zorionak! Familiakoak eta lagunak.



ARRASATE
Aitziber Juaristi
Uztailaren 9an, 26 urte. Urte askotarako! Koadrilakoak.



ARRASATE
Oskar Núñez
Uztailaren 16an, 24 urte. Zorionak, Txino! Lagunen partetik.



ARRASATE
Larraitx Kortabarria
Uztailaren 15ean, 17 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Maialen Usatorre
Uztailaren 20an, 2 urte. Zorionak! Etxekoak eta Sandra, Erika eta Maria.



ARRASATE
Miriam Rodríguez
Uztailaren 19an, 15 urte. Zorionak! Etxekoak.



BERGARA
Yolanda Azkarate
Uztailaren 22an, urtebetetzea. Zorionak! Etxeko-en partetik.



ARRASATE
Eva Azkarate
Uztailaren 22an, urtebetetzea. Zorionak! Etxeko-en partetik.



ARRASATE
Maialen García
Uztailaren 22an, 11 urte. Zorionak! Etxeko-en partetik.



ARRASATE
Enaitz Errasti
Uztailaren 22an, 1 urte. Zorionak eta muxu bat! Familiakoak.



GASTEIZ
Humberto Balantzategi eta Mertxe Errasti
Uztailaren 18an eta 28an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu bat! Malen.



ARRASATE
Nerea Uribetxebarria
Uztailaren 21ean, 4 urte. Zorionak! Aitor eta etxekoak.



ARRASATE
Alaitz San Vicente
Uztailaren 16an, 5 urte. Zorionak eta muxu bat, familiako-en partetik.



ARRASATE
Xabi Carmona
Uztailaren 17an, 14 urte. Zorionak! Etxekoak eta lehengusuak.



ARRASATE
Miren Arana
Uztailaren 20an, 3 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Iker Zubizarreta
Uztailaren 23an, 1 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Itziar Arrizabalaga
Uztailaren 14an, 9 urte. Zorionak! Familiaren partetik.

Adi! Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzeari komeni da.

ZAHARREN ETXETIK

XABIN MARTIARTU/ERRETIRATUA

“Udalak erdi galduta dauden Arrasateko mugarriak errekuperatu beharko lituzke”

IKER BARANDIARAN

Xabín Martiartu 1934an jaio zen, Arrasaten. Eskola Politeknikoan irakasle lanak egin zituen, eta Lantegi Eskolaren proiektua abian jarri zuen. Erretiratuta dago, baina Udalarari proposamenak egiten dihardu.

Non ikasi zenuen?

San Viatorren eta Eskola Profesionalean ikasi nuen. Eskolan Ofizialtza eta Maisutza industrialak ikasi nituen.

Ikasketak bukatu bezain laster lanean hasi zinen?

Bai, ikasketak bukatu bitartean, goizetan Angel Garai enpresan egin nuen lan, eta ikasketak egin ondoren Roneon ibili nintzen.

Eta halako baten irakasle hasi zinen...

Bai, Roneon lanean nabilela, Eskola Profesionaletik deitu zidaten, eta 1958tik 1988ra Teknologia, Tailerra eta Marrazketa irakatsi nituen, besteak beste.


Sasoi hartan ezkondu egin zinen...

Bai, 1965ean ezkondu nintzen, Vitorina Zugastirekin. Bost seme-alaba ditugu: neska bi eta hiru mutil.

Bat-batean, erronka bati aurre egitea proposatu zizuten...

Bai. 1988an Arrasaten Lantegi Eskola egitea erabaki zuten, eta proiektu hura abian jartzeko ardurua eman zidaten. Proiektua onartuta zegoen eta dirua ere bazegoen, baina kokapena, ikasleak eta irakasleak falta ziren. Hasieran Elman txoko bat utzi ziguten; gero, Metalurgica Cerrajerako lokala utzi ziguten, eta ikasleek zeharo berri egin behar izan zuten. Hamar urte egin nituen han, erretiratu nintzen arte. Gazte asko-rendako aukera ona izan zen, eta hango ikasleek hainbat enpresa sortu dituzte.

Erretiratu arren, ez zara zu erraz aspertzen den horietara...



IKER BARANDIARAN

koa...

Ez. Lo egitea jatea bezain garrantzitsua da. Eta lo egiteko, ibili egin behar da. Goizero mendira joaten naiz. Eta asko ibiltzen naizenez, zuzendu beharreko akats asko ikusten ditut. Eta horiek salatzen eta hobetzen ahalagintzen naiz.

Gernika Oinezkoen Zumardiaren gaineko kexa asko helarazi dituzu, ezta?

Bai. Pasealeku zoragarria dela uste dut, eta oso pozik nago egin dutelako, baina hainbat eremutan aldapa handiegia dago, eta erretiratu asko ezin dira hortik ibili. Hori behin baino gehiagotan salatu dut. Bestalde, Obenerrekako zubia aldatzea lortu nuen. %8,33ko malda zeukan, eta, alderdi politi-

“Mendian eta kalean asko ibiltzen naizenez, zuzendu beharreko akats asko ikusten ditut”

ko guztiekin eta ONCEREkin berba egin ostean, %6ra jaitea lortu nuen.

Zuk eta lagun batek iturri bat egin duzue...

Bai. Anporretak plano zaharretan Iturritxipi-gain izena dauka, eta han errekastoa dagoen sumoa genuen. Demetriok eta biok

“Udalak Etxezarreta erosi beharko luke, herritar asko lurzoru horretan ibiltzen gara-eta”

errekastoa aurkitu genuen, kanala egin genuen, hodiak jarri genizkion eta iturria egokitu dugu.

Udalerako beste proposamenik baduzu?

Erretiratuen laguntzarekin, herriko mugarriak errekuperatu beharko lirateke, eta Udalak Etxezarreta erosi beharko luke.

LABUR

Toki Argi elkarteak Bizkaiko kostaldera txangoa antolatu du

Irailaren 13an, Toki Argi erretiratuen elkarteak Bizkaiko kostaldera txangoa antolatu du. Bermeo eta Gaztelugatxe bisitatuko dituzte. 20 euro ordaindu behar dira. Izena eman lehenbailehen.

Uribarri elkarteak Donibane Lohizunera txangoa antolatu du

Martitzenean, uztailearen 22an, Uribarri elkarteak Donibane Lohizunera eta Hondarribiara txangoa antolatu du. Interesatuak 20 euro ordaindu beharko dituzte. Goiza Donibane Lohizunen igaroko dute, eta Hondarribian bazkalduko dute. Interesatuta bazaude, izena eman lehenbailehen.

Toki Argi elkartekoak Costa Bravara joango dira

Toki Argi elkarteko erretiratuek Costa Bravan egongo dira irailaren 27tik urriaren 3ra. Hainbat herri eta hiri bisitatuko dituzte: Figueres, Ampuria Brava, Girona, Bartzelona, Tossa de Mar...

Bakoitzak 220 euro ordaindu beharko ditu, eta dena egongo da prezio barruan. Izena eman lehenbailehen.

Irailean hainbat berbaldi Toki Argi elkartean

Toki Argi elkarteko erretiratuek oporren osterako hainbat berbaldi antolatu dituzte. Besteak beste, irailaren 16an, jabego horizontalaren gainean egingo dute berba; besteak beste, etxebizitzaren eta auzokomunitatearen gainean. Irailaren 26an, berriz, zorientasuna izango dute berba. Biak 17:00etan izango dira.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis - Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko uztailaren 18a / 73. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Hitzaldiak, txangoa eta bazkaria antolatu dituzte aurtengo Erretiratuaren Asterako

U.M.

Astelehenean hasi eta zapatu-
ra arte ospatuko dute aurtengo
Erretiratuaren Kultura Astea
aramaiarrek. Hitzaldiak,
txangoa eta bazkaria izango
dituzte, besteak beste. Herriko
erretiratuari, alargunei eta
pentsiodunei zuzendutako
ekimenak dira.

Hitzaldiekin hasiko dute aurtengo
Erretiratuaren Kultura Astea.
Astelehenean (hilak 21), 18:00etan,
izango da lehenengoa, kultura
etxean. Udaleko gizarte laguntzaile
Susana Martínez izango da
hizlaria.

Martitzenean, berriz, Aramaioko
mediku Javier Españak beste hitzaldi
bat egingo du. Hori ere 18:00etan
hasiko da, kultura
etxean.

TXANGO KULTURALA

Horrez gainera, eguenean txango
kulturala antolatu dute. Goizean,
10:00etan irtengo da autobusa,
eskolatik; eta Gasteizko Artium
museoa ikustera joango dira
lehenengo. Horren ostean, beste
museo bat ikusiko dute, ardoaren
gainekoa, oraingo



Besteak beste, pertsona nagusiak horrenbeste kezkatzen dituen osasunaren gaineko berbaldia izango da Kultura Astea.

honetan: Laguardia y Sios museoa,
hain zuzen ere. Eta, bukatzeko,
txangoan parte hartzen dutenek
bazkaria egingo dute Marisa
jatetxean.

BAZKARIA ETA OPARIAK

Eta zapatua Kultura Astearen
amaiera eguna izango da. Meza
entzango dute lehenengo,
13:00etan. Eta gero, 14:00etan baz-

karia izango dute. Bazkalostean
opariak banatuko dizkiete parte-
hartzaileei.

Urtero moduan, Alaiak elkar-
teak antolatu du Kultura Astea.

*Hizlari bi daude:
astelehenean, Gizarte
Laguntzailea; eta
martitzenean,
medikua*

*Eguenean txangoa
egingo dute: Artium
museora eta
Guardiako Ardoaren
Museora*

*Bukatzeko,
barikuan meza eta
bazkaria izango
dituzte; baita
opariak ere*

Gazte lokalak berriro ere zabaltzea erabaki dute

U.M.


Berriro ere zabalduko dituzte
kultura etxeko gazte lokalak.
Hala erabaki zuten joan den
asteko osoko bilkuran. Hori
bai, lehenik eta behin gazteek
lokalak garbitu, margotu eta
konpondu egin beharko
dituzte. Eta, proba moduan, sei
hilabeterako utziko dizkiete.

Erabaki horiek hartu zituen udal-
batzarrak azkeneko batzarrean.
Erabaki zuten, baita ere, 14 urte-
tik 20 urtera arteko muga ipintzea
gazte lokalak sartzeko. Hain
zuzen, puntu horrek izan zuten
eztabaidarik handiena; zenbait
zinegotzik ez zuten-eta argi ikus-
ten gazteen adin muga 20 urtera
arte zabaltzea; 18 urtera artekoa

izatea gurago zuten.

Kontuak kontu, lehen aipatu-
tako moduan, udalbatzarrak gazte
lokalak berriro zabaltzea erabaki
du, betiere baldintzapean. Hala,
zabaltu baino lehen, lokalok gar-
bitu egin beharko dituzte, eta gaz-
teek sartutako altzarrietako batzuk
kanpora atera (zinegotzien ustez
egoera eskasean daudelako). Apur-
tutakoak (sarraila eta leihoa, adi-
bidez) konpondu egin beharko
dituzte, eta hormak margotu (gaz-
teen kontura). Era berean, lanpa-
rak eta fluoreszenteak ez tapatzea
eskatuko diete gazteei, horiek su
hartzeko duen arriskuarengatik.
Eta, hasteko, sei hilabeterako utzi-
ko dizkiete lokalak, proba moduan.

Dena dela, orain gazteekin ber-
ba egin beharko dute ea haiek
ados dauden erabakitakoarekin.



Noizean behin gazte lokalen egoera ikustera joango dira Udaleko ordezkariak.

LABUR

Oraingo asteburuan hasiko da udako zinema

Oraingo asteburuan hasi eta
irailera arte (iraila barne),
zinema emango dute zapatu-
ro. Udako zinemaren denbor-
aldia da. Hala, oraingo zapatu-
tuan *Mortadelo y Filemón* fil-
ma emango dute, 22:00etan,
kultura etxean. Berez, udako
zinema kanpoan emateko da,
eta bestetan hala egin izan
dute. Baina orain arte erabi-
li izan dituzten lekuak oso
egokiak ez direla-eta, erabaki
dute oraingo kultura etxean
ematea. Aurrera begira, pla-
zan eman gura dituzte filmak,
baina argindarra-eta egokitu
beharra dute horretarako.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Table with 2 columns: Service name and phone number. Services include Botika, Udaletxea, Erzaintza, Gurutze Gorria, San Martin Eskola, Taxia, Udal kiroldegia, Postetxea, Zuiako Eskualdea, and Suhiltzaileak.

AUTOBUSORDUTEGIA

Table with 3 columns: Direction (ARRASATE, ARAMAIO, GASTEIZ), Time, and Next Direction. Shows bus schedules for various routes.

OHARRA: izartxoaren orduetako eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

UDA IKASTAROEN LIBURUAK

Uda ikastaroak izan duten arrakasta ikusita, antolatzaileek erabaki dute ikastaroetan egindako hitzaldiekin eta galdera-erantzunekin liburu bana kaleratzea. Hala, iazko ikastaroen gaineko liburua abendurako plazaratzeko asmoa dute. Berriz, aurtengo ikastaroen gainekoa urtarrilerako argitaratu gura dute, aurreikuspenen arabera. Gogoratu dezagun, iaz Europako hizkuntzak, lehen eta orain izeneko ikastaroa egin zutela; eta aurtun, Euskal Herria eta inguruko lurraldeak, I-X. mendeak izenekoa.

IRAILEKO ORDUTEGIA

Erabaki dute irailean zelan jardungo duten lanean kultura etxeko KZGunean. Hala, irailaren 1etik 16ra arte, 16:00etatik 20:00etara izango da zabalik; eta 17tik 30era, 09:00etatik 13:00etara. Gogoratu ezazue KZGunean izena eman nahi izanez gero, Udaletxera jo behar dela. Bestalde, argibideren bat-edo behar duenak, KZGuneko telefonora deitu dezake. Honako hauxe da: 945 44 54 36.

Ikasliburuak erosteko dirulaguntza emango dute

UBANE MADERA

2003-2004 ikasturterako ikasliburuak erosteko dirulaguntzak eska daitezke. Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edozein mailatan matrikulatuta dauden ikasleendako dira laguntzak. Urriaren 15a baino lehen eskatu behar dira.

Guraso baten baino gehiagoren estuasuna izaten da ikasturtero seme-alabei ikasliburuak erosi behar izatea; diru-gastu handia egin behar izaten dute eta. Horri aurre egiteko aukeretakoa bat bigarren eskuko liburuak eskuratzea izaten da; eta beste aukera bat Foru Aldundiak eskaintzen dituen dirulaguntzak eskatzea.

ZEINEK ESKATU DEZAKE

Honako hauek eska ditzakete laguntzak: Haur Hezkuntzako bigarren zikloan edo Lehen Hezkuntzako edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edozein mailatan matrikulatuta dagoen edozein ikasleren gurasoek edo

tutoreek. Betiere, Araban errolatuta badaude, jakina.

AURKEZTU BEHARREKOAK

Dirulaguntzak eskatzeko honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira: laguntza eskaera (Diputazioaren inprimakia); eskatzailearen nortasun agiria edo pasaportea; familia liburuaren fotokopia; ikaslearen errolatze zedula, 2003an eguneratua; ikaslearen 2003-2004 ikasturteko matrikularen ordainagiria edo matrikulatze egiaztagiria; eta erosi beharreko liburuen faktura originalak (fakturan, gutxienez, eskatzailearen izena, liburuaren izenburua eta prezioa adierazi behar dira). Esan beharra dago, baita ere, eskaera bakarria aurkeztu behar dela. Nahiz eta familian ikasle bat baino gehiago izan.

URRIAREN 15ERA ARTE

Dagoeneko eska daitezke dirulaguntzak. Oraingo martitzenean (hilak 15) zabaldu dute epea. Urriaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira eskariak. Diputazioko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak Gasteizko Samaniego kaleko 14. zenbakiko bulegoan.



Arexola-Arriolan Santa Marina jaiak asteburuan

Oraingo honetan, Arexola-Arriolan egongo da jai giroa, barikuan hasi eta domekara arte. 20:30ean hasiko dira jaiak etxafuegoekin eta kanpai errepikarekin. Meza ere izango da 20:30ean, Santa Marinan. Eta horren ostean, 21:00etan, auzokoendako bertso-afaria izango da, herriko trikitilariek lagunduta.

Zapatuan meza izango da, 12:00etan. Eta horren ostean, betiko moduan, Aramaioetik Arexolara txirindularitza lasterketa egingo dute. Lasterketa bukatu eta gero, Vermouth dantza egingo dute,

trikitilariek lagunduta. Arratsaldean, 17:30ean, Arexolatik Arriolarako kalejira izango da, trikitilariek; eta ordu berean, urteroko briska eta mus txapelketak jokatu dituzte, Arexolako plazan. 19:30ean, berriz, kanpai jotze erakustaldi bitxia egingo dute auzokoek. 22:30ean dantzaldia izango da Inigorekin eta Mentxurekin eta bukatutakoan, txokolate-jana, elkartean. Eta domekan, eguerdian, meza eta dantza saioa egingo dituzte, eta 17:30ean ume-jolasak, pailazoen lagunduta.

BOTEPRONTOAN/ Nikolas Gardoki · Soinu jotzailea

“Erromeriak asko galdu dira; gaur egun, jendeak gura du tabernan musika ozen ipini eta han ibili”

Nikolas Gardoki aski ezaguna da Aramaion eta inguruetan. Batetik, jairik jai ibiltzen delako; bestetik, ezkontzetan sarritan nagusi izaten delako. Jakina, soinua altzoan hartuta. 45 urte-edo eman ditu hala:



Ezkontzetan espezialista zara... Espezialista-edo; makina bat ezkontza egin ditugu, ez dakit onak edo txarrak garelako-edo... **Gutxienez, martxosoak izan beharko duzue, ezta?** Bai, jo egin behar izaten ditugu pieza *martxosoak*, bai. Geroago eta *martxa* handiagorekin doa gauza. Lehenagoko piezak estimatu egiten dira, baina ez da horrelakorik ateratzen. Modan daudenak jo behar izaten dira: *Bomba...* Orain, *Haciendo el amor* edo hori ikasi beharko dugu. Eta ez pentsa, soinuarekin horiek ikasteko oso gaitzak dira. Lehengo piezek, akaso, zortzi nota besterik ez zuten, baina eleganteak izaten ziren. Orain, berriz, nota mordoa dituzte, eta azkenean norberak ere ezin du ulertu zer jotzen duen! **Baina lehengo agarrak jotzen jarraitzen duzue?** Egin egiten dira. Baserriko lekuetan gustura egiten ditu jendeak. Batez ere edadekoek. Dena dela, erromeria modukoak

asko galdu dira; gaur egun, jendeak gura du tabernan musika ozen ipini eta han ibili. Gogoratzen naiz orain 35 urte-edo neu bakarrik plaza handi baten mahai zahartxo baten gainean eta plaza beteta, dantzari. Akaso 20 pieza-edo jakingo nituen, eta haiei buelta eta buelta ematen ibilita ere, jendea gustura! Plaza bētetā! Orain, nahiz eta talde ona ekarri, ez da plaza betetzen. **1959an egin zenuen aurreneko ezkontza. Akordatzen non?** Bai, Azkoagan. 11:00ak inguruan hasi ginen, kalejira egin genuen elizaraino. Ezkontza baserri baten izan zen; lo ere han lo egin genuen, eta hurrengo egunean denok kalejira joan ginen kalera, mezetara. Gero, txikiteoa egin genuen. **Horrenbeste urtean zenbat ezkontza egin dituzun kontuan**

badaukazu? 4.000 ezkontza-edo egin ditut. Lehen, astean lau zapabost egiten genituen. Ezkontzen agenda gordeta daukat, zenbat kobratzen genuen eta guzti. Pentsa, lehenengoko ezkontzetan hamar duro kobratzen genuen; diru asko zen hori! Eta plazetan ere jotzen genuen. Dena dela, asko igarri da ezkontzea gutxitu egin dela. Askok, gainera, familiakoak egiten dituzte (20-30 lagun). **Bakarrik hasi zinen, baina gero familiakoak laguntzen hasi zirene, ezta?** Bai. Loba bi hartu nituen. Batek 9 urte zituen eta besteak 11 egiteko. Nik 18 urte inguru. Hirurok hasi ginen, eta berritasuna izan zen: uniformearekin... Akordatzen naiz Aramaion egon zen abade batek esaten zidala gaizki erakusten nibilela lobei, publikoan ibiltzeko edaderik ez zeukatela eta. Plazan bikoteak arrimatuta dantzan ibiltzen zirelako... **Semea ere lagun izan duzue...** Seme nagusienarekin ekin nion, orain 15 bat urte dela-edo. Seme nagusiarekin eta Eskoriaitzako Landarekin hasi nintzen. Hamar urte inguruan ibili zen nirekin, eta gero Oñatiko Ugarte hartu nuen, eta hirurok gabiltza.

“Derrigor jo behar izaten da ‘Pakito chocolatero’ kantua; beti eskatzen didate, baita umeek ere”

“Lau bat belaunaldi gabiltza musika jotzen. Eta oraindik badaukat jarraitzeko asmoa”

UDALEKUAK

Ume zaratak nagusi izango dira kalean datorren martitzenera arte

Zortzi taldetan banatuta, Aramaioko 73 neska-mutiko dabilta aurtengo udalekuetan parte hartzen. Joan den astean hasi ziren eta datorren martitzenera arte (hilak 22) ibiliko dira Aramaioko kaleak zarataz, barrez eta musikaz betetzen. Goizean egiten dituzte ekimenak, 10:00etatik 13:00etara.

Hala, zortzi begiraleren zainzapean, jokoak, musika, eskulanak eta txangoak egingo dituzte. Argazkian, adibidez, plazan harrapatu ditugu, ikusten duzuen moduan, eskulanak egiten, Exkixu taldearen musikak lagunduta.

Ludotekako arduradun Ana Muñoa da udalekuetako begiraleen arduradun.

Eta, horren harira, esan beharra dago orain udalekuak dardenez, ludoteka itxita dagoela. Hain zuzen ere, iraileko lehengo egunera arte egongo da itxita. Ordutik aurrera, betiko ordutegiarekin eta funtzionamenduarekin zabalduko dute zerbitzu hori.



73 neska-mutikok eman dute izena aurtengo udalekuetan parte hartzeko; ekimen ugari antolatu dituzte begiraleek euren dako.

KIROLA

Gazte ugari ibilizen zapatuan herriko errekan amuarrainak harrapatu guran

Zapatu goizean Aramaioko gaztetxoak goiz jaiki ziren. Errekan ibiltzeko botak jantzi, kanbera hartu, gainerako materiala prestatu eta amuarrainak arrantzan egitera irten ziren. Antolatzaileen esanetan, neska-mutiko dezentek esku hartu zuen lehiaketan, 40 bat gaztetxok, hain justu ere.

Aurten 25 urte bete ditu Aramaioko Arrantza Lehiaketak, eta dagoeneko ohitura handiko ekitaldi bilakatu da. Parte hartzeko baldintza bi bete behar izaten dituzte arrantzaleek: aramaiorak izatea, eta 16 urtetik beherakoa izatea. Edozelan ere, eda de hori atzean aspaldi utzi zutenak ere bazebiltzan inguruan.

Oilgor Ehiza eta Arrantza Elkartekoek antolatu dute ekimena. 150 amuarrain bota zituzten Aramaio errekarera. Kanpe-zuko haztegitik ekarritakoak. Antolatzaileen esanetan, arrainak kilo laurdenekoak ziren, afari ederra egiteko modukoak. Izan ere, amuarrainen bat harrapatu zuenak etxerako eraman zuen. Eta, amuarrainak harrapatu ez zutenek ere, ederki asko pasatu zuten zapatu goiza. Baita begira egon ziren herritarrek ere.



40 bat gaztetxok parte hartu dute aurtengo Arrantza Lehiaketan.

OIHAN VEGA



Orain dela pare bat hilabete sortu zuten

Urtero moduan, jendez bete zen domekan Uribarri auzoko San Kristobal ermita. Ehunka lagun elkartu ziren erromerian. Izan ere, mendetako ohitura zaharra da gidarien zaindariaren bedeinkazioaren bila ermitara igotzea. Gaur egun ere, indartsu segitzen du ohitura horrek, eta Aramaiotik ez ezik, Otxandio aldetik eta Debagoienetik jende ugari joan zen domekan San Kristobalera.

San Kristobal egunak erromerien osagai guztiak izan zituen: meza nagusia ermitan, dantzariak, txistulariak, musika, eta zela ez, sabela ondo betetzeko bazkarria eta ardoa. Eta, gainera, eguraldiak ederki lagundu zuen. /OIHAN VEGA

EZETZASMATU



UBANE MADERA

Zein udalerriri dagokio Epeletik Kanpanzarrera doan errepide zatia?
Arrasate da Epeleko igoera? Ala Bergara? Ala Oñati?



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

San Miguel garagardoa
25cl-ko 12 botila + 2 doan

3,47€ 577 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MARI JOSE UNZUETArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Mari Jose!

Galderen erantzun zuzena:

Vergarajauregi Resusta y Cía eta La Cerrajera Guipuzcoana. 1906an sortu zuten Unión Cerrajera.

ARRASATEKOHISTORIA

Monterron jauregiaren gaineko zenbait datu

JON ANDER RAMOS

Ezin da zehatz-mehatz esan zein urtetan eraiki zuten Monterrongo kondeek bigarren jauregia. Dokumentuok Madrilen galdu ziren, Espainiako gerran. Kontuak kontu, Mateo de Aranguren eta Maria Saenz de Andikanoren arteko ezkontzarako eraiki zuten jauregia. Gutxi gorabehera 1648an kokatu dute adituek eraikuntzaren data, bikote hura ezkondu zen urtea, hain zuzen ere.

Carlos II.a erregeak eman zien Monterrongoei konde titulua. Berez, Alcalá de Henarestik gertu dagoen herri bat da Montarrón; baina Errege Dekretua emateko orduan, arduradunak akatsa egin zuen eta *a* idatzi beharrean *e* idatzi zuen. Horregatik da Monterron.

Felipe V.ak Errege Jauregi izendatu zuen, eta hori adierazten duten kateak ipini zituzten jauregiaren sarreran. Gaur egun dauden kateak ez dira jatorrizkoak; haiek Eibarko milizianoek kendu eta apurtu zituzten. *Gora askatasuna, behera kateak* oihukatuz sartu ziren jauregian, Riegoren altxamenduaren

Errege Dekretuan akatsa egin zuten: 'a' beharrean 'e' idatzi; hala izendatu zuten Monterron

Jauregiaren zati nabarmenena sarrera da, dagoenetan gorde dute-eta

ostean etorri zen garai konstituzionalean (1821). Gero, 1964ko urtarrilaren 17an Monumentu Historiko izendatu zuten.

Jauregiaren zati nabarmenena sarrera da, dagoenetan gorde dute-eta. Errekarriekin egindako zoruaren erdialdean kondeen koroa ikusten da. Legendak honakoa dio: "Konbentzioko indarrek Arrasate okupatu zuteneko gudari frantsesen



UBANE MADERA

Monterrongo jauregiak izen handiko bisitariak izan ditu historian; tartean, bost errege-erregina.

hezurrekin eginda dago sarrerako koroa". Edozelan ere, seguru aski hezurak behiarenak dira.

Jauregiak izen handiko bisitariak eduki izan ditu historian: 1660an, Felipe IV.a;

Felipe V.a, Espainiako tronua hartzera joan zenean; 1748an, Fernando VI.a; 1805ean, Toskanako erregeak; Isabel II.a eta Maria Cristina Erregina, berriz, 15 egunez egon ziren Monterro-

nen 1843an; Cánovas del Castillo sarritan egon zen, Santa Agedan urak hartzen zituela; eta azkenik, Francok eta segizioak Monterrongo parkean afaldu zuten 1949an.

ERRETRATUZAHARRA

Maala dotore Elizaren Kongresurako

Maalako Errabaleko jaiak dira datorren uztailaren 22an: Madalenak. Eta, horren harira, argazki zaharraren atalean hara jotzea erabaki dugu.

Joan den mendearen erdialdeko argazkia da: 1953koa, hain justu ere. Kongresu Eukaristikoa egin zuten urte hartan Arrasaten. Argazkian ikusten duzuenez, ederto asko txukundu zituzten herriko etxeok eta kaleok kongresurako. Maalako Errabala bera ere dotore-dotore ipini zuten. Horrela-koetan, ohitura izaten zen kaleak girlandekin eta zutoihalekin itxuratzeta eta balkoietatik izarak zintzilikatzea, banderarik ez zegoen-eta. Jesukristoren irudia erakusten zuten aldare txiki moduko ugari ere egiten zituzten, kalean ipintzeko. Izan ere, oso ekitaldi garrantzitsuak izaten ziren kongresuok. Genaro Lekuona parrokoak kontatu digunez, sasoi hartan Elizak bestelako itzala zuen, gizartearen ardatza zen; egon ere ez zegoen beste alternatibarik diktadura gogor garai haietan.



Kongresuak Elizak egiten zituen topaketak ziren. Hiru egunekoak edo astebetekoak izaten ziren, normalean. Eta, tarte horretan, sermoiak, hitzaldiak, prozesioak, eta abar egiten zituzten. 1953an, Arrasaten, eta kongresuaren izenak dioenez, eukaristikoa izan zen. Esate baterako, Genaro

Lekuona parrokoak gogoan du 1946-47an beste kongresu bat egin zutela Arrasaten.

Apezpikuak-eta etortzen ziren, Elizako goi mailako hierarkietakoak, alegia.

Oraingo asteko argazkian, jendea irteten ikusten da orduan Aizkoraren


denda zenetik. Eta, bitxikeria moduan, begira itzazue balkoiak: gaur egun ez daude, bota egin zituzten-eta.

Argazkia: ARRASATE PRESS
Informazioa: Jose Mari Balanzategi eta Genaro Lekuona
Urtea: 1953


NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Arrasate enpresa-gune bilakatu

1954ko apirilaren 14a egun berezia izan zen Arrasate-
rendako. Izan ere, egun hartan jarri zuten Ulgor SCI lantegiko lehen harria, eta handik aurrera On Jose Maria Arizmendiarrietak horrenbeste urtean prestatutako egitasmoa indarra hartzen hasi zen. Bestalde, trena gaur egun Fagor Arrasate dagoen lekutik pasatzen zen, eta 1967an utzi zion ibilbide hori egiteari.



≈ 1950 Argazkiaren ezker aldean azaltzen den baserria *amerikanoena* da. Goiko aldean azaltzen den baserria, berriz, Muxibar da.



2003 Nahiz eta ahalegindu garen, argazki batzuk leku beretik ateratzea ezinezko da. Argazki hau San Josepe harrobitik dago aterata.

EGUZKI GRAF
inprimategia
ARETXABAETA

Industrialdea E-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

Garagardo ona, giro hobea

TXIRRITA
Taberna
Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35



Maialako jaiak 2003



MOYDIBAGON - Arrasate de la Magdalena - Arrasaten 1906. urtetik

**Monte
taberna**

Maialako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

JADE
ILE APAINDEGIA

Maialako Errabala, 21-B - ARRASATE - Tel.: 943 77 16 31



Etxeak, lokalak, ... saldu-erosi
Tasazioak
Fiskal Aholkularitza
Errentamenduak
Kontratuak

Udalatx
InmobiliariA

Maialako Errebala, 27 behea. Tel.: 943 79 59 99

udalatx@udalatx.com / www.udalatx.com

**Concepción
Tamayo**

DERMATOLOGOA

Laser tratamenduak

Maialako Errebala, 23-2A
Tel.: 943 77 05 57



ARRASATE ORTOPEDIA

Maialako Errabala 8
Tel.: 943 77 20 78

Osakidetzarekin eta
Lagun Arorekin hitzartua

Oinaren tratamendua ordenagailu bidez
Pedikura ortopedikoa eta oin-osatzea

Oinaren azterketak: tendinitisak,
gerrialdeko minak, min zerbikalak eta
bizkarreko minak antzemateko.

Umeak: hainbatean behin egiten
diren azterketa konparatiboak, umeari
egin zaion zuzentzearen jarraipena
egiteko.

Materia bigunen erabilerak: oin
erreumatikoendako, diabetikoendako
eta neurologikoendako.

CAD/CAM sistema: Plantillen fabri-
kazioan (berehala ematen dira).

Neurri-egintza eragileko gaitakoak.
AEBetarik inportatua.

Bizi kalitate hobea • Guztia ordenagailuz kontrolatua

UZTAILAK 20, DOMEKA

12:00etan: San Frantzisko elizan meza, Maalako Errabalean hil diren guztien oroimenez.

13:00etan: Kaleko erretiratuendako luntxa Plus Ultra taberna.

UZTAILAK 22, MARTITZENA

08:00etan: Etxafuego jaurtiketa.

17:00etan: Ume jolasak eta txokolate-jana.

19:00etan: Txikiteoa.

21:00etan: Afaria Maalako Errabalekoendako.

22:30ean: Musika eta dantza.

23:00etan: Suzko erruberak.



Maalako jaiak 2003

FOTO

Enrique Martín IMAGEN FOTO

Maalako Errebala 11 • ARRASATE
Tel.: 943 77 08 62

Barceló Bidaiak

Ondo pasau jaixetan!

Maalako Errebala, 31
Tel.: 943 79 70 11

UNITED COLORS OF BENETTON

Haurdunaldi, ume eta gazteendako moda

Maala, 13
Tel.: 943 79 50 78

AE ELKORO

- Elektrizitatea
- Antenak
- TB, Bideo eta Hifi konponketak

Maalako Errebala, 29 • Tel.: 943 79 45 99 / 943 79 18 86

KYMETZ

Kazuelatxoak, ogitartekoak eta pintxoak

Maala, 15
Tel.: 943 79 60 14
ARRASATE

Bitxitegia Erlojutegia

Maala 5 • Tel.: 943 79 19 25